Jon Gaztelumendi

Haizea mindu gabe

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1999 Jon Gaztelumendi
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1999ko maiatza
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Hitzaurrekoa

Itsuaurrekoak bezalaxe, edo itaurreko itzainaren gisa, bide erakusle nahi luke izan hitzaurrekoak: argigarri. Baina irakurleak paso eginez asmatzen du askotan; hitz hauei jarraika letorkeenak ere horixe luke onena seguru asko, bere makilarekin aski baitu itsu ibiliak behaztoparik ez egiteko. Eta uztar idiak ikasia du bidea ibiliaren ibiliz; ez dizu aldatuko pausoa zu aurrerago eta bizkorrago joan arren.

Jon Gaztelumendiren ipuinok ere ez dute itzain premiarik. Euren pausoan doaz kartzelako mundu itsuan bidea asmatuz eta erakutsiz, artez gainera. Aise ezagutuko ditu kartzela dazaguenak; ezagutzen ez duenari bidea zabalduko diote ezagutu dezan.

«Gure esku dago zulo edo habia bihurtzea leku hau» diotso Joanak Ainhoari, ziega batetik bestera. Presooz hainbeste hitz egiten eta idazten den honetan, presoon kontura hainbeste literatura egiten den honetan, geure esku dago, presoon esku, neurri handi batean bederen,

munduz kanpoko mundu lauso honen barrunbeak azaltzea geure literatura eginez, geure euskal literatura, geure habia txikiak berotuz, inork zaputz diezazkigun utzi gabe.

Ohto indiarraren mamua azaldu zaie gauean bi presori: bere lurraz hitz egiten die puruaren ke eta kafearen lurrunaren artean. Azalgorrien oroimenaz hitz egiten die Ohtok, bere arbasoen izpirituaz, erreserba-barrutiez... Kartzela dira erreserba-barrutiak.

Gure erreserba-barrutiotatik indar eta bizigogo propioz ihesi doazen izpirituak dira presoaren kontu idatziak; mezulariak dira.

Maiteak ditut ipuin-izpiritu mezulariok, eta ohore zait euren hurbileko izatea. Bejondeiala, Jon!

Laster arte!

Jokin Urain
Bonxen, 1999ko apirila

Goizaldean lur sakonetik
itsas aldera doaz hegaztiak,
ilaran, bata bestearen atzetik
haizea mindu gabe.
Modulu arteko patio batean
preso bat dago gora begira;
zein motatako txoriak diren
galdetu du ozen,
erantzunik jasotzeko
itxaropenik gabe.

Egun bat espetxean

Euskal preso politikoak badaudela ziurtatzeko moduan nago. Nik ezagutzen ditut. Beraien artean nago aspaldidanik. Neu naiz bat. Orereta-koa. Jon da nire izena.

Duela gutxi jelkide batek esan zidan:

– Jon, datorren astean, neu sartuko naiz zure ordez espetxean. Neuk ere hamaika urte igaroko ditut hor barrenean, zuk bezala; espetxe batetik bestera, beti urrun, gose-greba amaigabeetan sarturik, duintasunez, isilean.

– Baina, tira, gizona...

– Bai, datorren astean zu kaleratu eta ni sartuko naiz barrura. Abertzale batek, eta nik independentistatzat dut nire burua, Euskal Herriarengatik eman beharko lukeen gutxien-gutxienekoa da kartzela. Nahiz eta sarritan bikote harremanak apurtu; nahiz eta seme-alaben harremanak murrizturik gelditu, eta ezin igande goizetan mendira irten, orain bezala; nahiz eta ogibiderik gabe gelditu, etorkizuna presentea izan, urteak ez baleude bezala bizi, dirua ekonomatoan or-

daintzeko adina eduki... eta lagunak Madrildik onartzen dizkizutenak izan...

– Tira, gizona...

– Bai, Jon: aberria ala hil! Ni ere euskalduna naiz. Gora Euskadi askatuta! Gora gure Sabino gudaria!

Harritu ninduen entzundakoak. Baina ez dut horretaz hitz egingo.

Badut eskaintzeko zerbait, gertaera xume bat, garrantzirik gabea. Historiak gordetzen eta kontatzen ez dituen horietakoa. Euriaren hotsa hurbil entzuten denean irakurri behar den horietakoa. Gauean ahal bada.

Kixkur eta Manu Valdemoroko espetxean daude udazken honetan. Espetxe ezberdinetan bizi izan dira, eta bi urte elkar ikusi gabe zeudela, Valdemoroko ziega batean sartu dituzte biak. Herri desberdinetatik iritsi direla dirudi.

Husten hasi dira, pegarrak bailiran. Ahotik husten. Oroimen bat 500 mililitro esaldi, berri bat 300 mililitro hitz, gertaera bat 250 mililitro

hots. Betetzeko eta husteko eginak baitira pegarrak, adiskideen harremanak bezala.

Kixkurrek bota du istorioa, arratsaldeko bostak aldera. Kixkur beheko literan eserita dago, eta Manu plastikozko eserlekuan jarrita leihoaren aurrean. Larunbata da.

– Bi mutikoren gurasoak kartzelan sartu zituzten. Gaztetxoak ziren anaia biak: batek hamalau egin gabeak zituen artean, besteak zazpi beteak.

Aita espetxe batean eta ama beste batean zegoela esan dio Kixkurrek.

– Eta semeek txandakatuz ikusten zituzten aita eta ama: anaia bat espetxe batera joaten zen bitartean, bestea bestera.

Kixkurrek atsedena hartu du, hitzetan bere semearen irudiak ez baitio buruan atsedenik uzten.

– Seme nagusia lanean hasi zen, beharrak eraginda.

Manuk bi tiro entzun ditu, Kixkur hizketan ari den aldi berean: ta-ta! Isileko begirada azkarraz aztertu du kanpoaldea. Leihotik olibadia ikusi du. Ordenaturik daude olibondoak, baina ez galga

berean. Zerua hotz. Olibadiaren ezkerretara zituak ereiteko lur saila dago. Uzta bilduta daukate nekazariek, eta lasto fardoak olibondoarena egin nahian ordenaturik daude, oso era kaxkarrean hala ere. Txori taldea ezkerretik eskuinera zihoan abiadura handiz. «Izuturik doaz, tiroen beldur» ondorioztatu du Manuk segundo-hamarrenean. Denak normal dirudi. Baina uso bat, pagauso bat, sartu da Manuren ikus-eremuan.

– Seme nagusiak gogoz eta amorruz ekin zion lanari. Gurasoen aurrean arduratsu agertu nahian, laguntzeko eta egoerari aurre egiteko prest zegoela adierazten zuen bere jarrerak. Mutiko prestua baina, mutiko berria zen: beste bat.

«Gurasoak izan al dituk kartzelan inoiz?» galdetu dio Manuk.

«Ez», esan dio Kixkurrek.

Manuk ez du gehiago esan beharrik.

– Emozio egoera berri hark anaia gaztea kutsatu zuen. Baina anaia gaztea berriro jaiotako mutikoa zen: «Joango gara», «egingo dugu», «esango diogu» esaten zuen lehen pertsonaren izenordaina ahaztuta. «Lana egingo dugu eta irabazitako dirua gurasoei emango diegu» zioen

anaia gazteak hunkiturik. Ametsak eta ilusioak, atsekabeak, egitasmotan bihurtzen ziren matematikako klaseetan.

Manuk burua goitik behera mugituz, historia jarraitzen duela adierazten dio... usoaren ibilbideari begirik kendu gabe. Zeruan mugitzen den gauza bakarra, usoa. Sigi-saga motzetan hurbiltzen ari da espetxera. «Ukitua zetorrek» pentsatu du. Lepoaz hegoez baino indar handiagoa eginez dator usoa.

– Anaia nagusiak lehen soldata eskuratu zuenean, anaia gaztearekin zenbatu zituen diruak ohe gainean. Azken uneraino gorde nahi zuten ustekabekoa. Gurasoek ez zekiten ezer. Zehaztasunez antolatu zuten bisita: zein asteburutan joan, nor norengana, zenbat diru sartu, eta nola esan sartuko zituzten zazpi mila pezetak beraiek irabazitakoak zirela. Barrez hasten ziren biak. Barre geldiezin hori, gozo hori, bero hori... Konplizitatearen barrea kontrolaezina da. Nork ez daki hori?

Seme nagusiak amarengana joan nahi zuela kontatu dio Kixkurrek, amari kontatu nahi baitzizkion berri guztiak: lanarena, zenbat diru ira-

bazten zuen, eta sartutako diruak lehen soldataz irabazitakoak zirela.

– Amaren kezkak leundu nahi zituen semeak. Baina gauza guztien gainetik «hemen nago ama» esan nahi zion, «aurrera goaz, ez gara kikildu», «bat gara bananduta ere». Suak ez du pisurik, baina nola erretzen duen su ttikienak ere! Semeak sutzarra zuen bihotzean.

Usoa altura galtzen doa. Baldar astintzen ditu hegoak. Espetxeko lehen hormaren gainetik igarotzen hasi denean, eskuin aldera jiratu da, haize bolada batek jota-edo. Manuk zeharka dakusa, eta orban gorria igarri dio eskuin hegal azpian. «Zauriturik zoak aurrera» pentsatu du. Ikus-eremutik alde egiten ari zaio. Usoak planeatu egiten du aldizka, eta orain forma bitxiko hodei batekin gurutzatu da. Usoak ez dio horri erreparatu. Manuk bai.

– Bidaia eguna iritsi zenean, bazkalondoan, diruak banatu eta ideiak txukundu zituzten anaiak biek. Horrela abiatu ziren Espainia aldera, diruak eta mezuak xorro berdinean gorderik zituztela. «Esaiok dirua lasai gastatzeko!; korrika egiteko zapatillak erosi behar baditu, rekaderoz

erosteko beldurrik gabe, badakik!». Azken unean, oihu eginez, «Muxu bat emaiok!, besarkada bat nire partetik!» esan zion anaia nagusiak jende multzo baten artetik. «Esaiok biziki maite dudala!». Eta anaia gazteak esaldi bakoitzari «Bai» erantzuten zion, haurrek beti esateko duten doinu horrekin.

Kixkurri ttikitu egin zaizkio begiak. Urrutira begira balego bezala ari zaio Manuri. Manuk dagoeneko ez du usoa ikusten, erortzen dator hegoak zabal-zabalik eraman arren, espetxearen paraleloan planeatzen. Begiak erdi itxita. Usakume zeneko lehen hegaldiak oroitu ditu usoak.

– Anaia gaztea aita zegoen espetxera iritsi zenean, besteren senitartekoekin hurbildu zen bulego bateko leihatilara. Bisitaren ordua hartu eta dirua sartzeko gestioak egiten hasi ziren. Anaia gazteari txanda iritsi zitzaionean, honek patrikara bota zituen eskuak, baina ez zuen dirurik aurkitu. Ez galtzetan, ez alkandoran, ez txamarran. Bi, hiru aldiz miatu zituen poltsiko guztiak, urduri, hamar aldiz. Baina ez zen dirurik ageri, galdu egin zituen guztiak. Dirua galdu? Non? Nola?

Ez omen zien senitartekoei ezer esan, esan dio Kixkurrek Manuri. Ez zuen hitzik egiteko indarrik. Bakarrik, galduta sentitu zen. Bisitaren lehen txanda eman zioten, eta trantze horretan sartu zen kabinara, goizeko lehen orduetan.

– Aitak semea aurrean ikusi orduko, eskuekin, begiekin, irribarrearekin, gorputz osoarekin agurtu zuen. Ukabilez ukitu bigunak ematen zizkion kabinako kristalari, «aupa hi, txapeldun» esanez bezala. Gau osoan bidaian egona zen zazpi urteko mutikoa zuen aurrean. Bazuen meriturik!

Aitak ozen hitz egiten omen zion, konfiantzan. Baina semeak ez zuen apenas hitzik egiten. Gertaera xelebreak kontatzen hasten zitzaion aita eta zirikatu egiten zuen semea. Honek nekez luzatzen zituen esaldiak. Irribarre lotsatua erakusten zuen. «Zer arraio gertatzen da» pentsatu zuen aitak. Zerbait gertatzen zela suma zezakeen, baina aurrera jarraitu zuen, etxeko egoeraz galdezka batzuetan, ikastolan zer moduz moldatzen zen jakin nahian bestetan.

Bisita amaitu zela jakinarazi zuen txirrin batek. Semeak ez zion aitari begirik kentzen.

«Etorriko naiz berriro» esanez agurtu zuen. Kabinatik barrura eraman zuten aita.

Manuk arretaz entzuten dio. Kixkurrek harrapatuta dauka nonbait, eta ez da jadanik usoaz oroitzen. Usoak, bere joanean, bero sentitu du gorputza. Gero hotz. Zalantzan dago. Udaberriaren zantzuak ote dira? Ez. Heriotzaren zantzuak dira.

– Aita kezkatuta zihoan korridore artetik ziega aldera. Semea galtzen ari ote zen galdezka, ernegaturik, goibel. Semea irteera aldera abiatu zen, pausoa estutuz. Sarreran tramiteak bukatu bezain laster, ondoan zegoen aparkalekura hurbildu zen, eta han, auto baten kontra burua, negar-malkotan lehertu zen, etsita, lur jota, txiki-arraio eginda.

Kixkur eta Manu bata besteari begira gelditu dira, hamar segundo, hogei, minutu erdia. Hitzik egin gabe, begietara so. Etsita. Lur jota. Txiki-arraio eginda.

Pikondotxoa bizi da, Lolo

Aza-hosto baten neurria besterik ez zuen. Dozena erdi bat hosto ikusten zirenean, baten batek, ezkutuan bezala, aihotzez jo eta ebaki egiten zuen. Kimu izatetik gora egiten zuen berriro ere pikondotxoak.

Ziegatik jaistean eta ziegara igotzean ikusten zuen Lolok hosto bakarreko pikondotxoa, barruti itxi hartan...

Jakingo ote dute landareek non dauden?

Lolo, hitz urriko mutila, familiarik ez balu bezala bizi zen kartzelan. Beti bakarrik.

Hormaren arrailduratik irteten zen pikondotxoa, arraildura haren barrualdera begira jarrita. Nondik zetorren zuhaixka hura? Motzondo zahar batetik seguruen. Lolok sustrai luze-luzeak irudikatu zituen, lur beltz hezetaraino heltzen zirenak. Horma garaiek gorako zuten hainbesteko altuera imajinatzen zuen beherantza; eta zainen harizpiak emandako zurrupadatxoei esker bizi zela pikondotxoa zementu-azalean.

Udaberrian, pikondotxoa bere hostoen berri ematera zihoanean, Lolori ez zitzaion odola berritu. Defentsarik gabe geratzen ari zela zioen odol analisiak. Odola txuritzen bezala sentitu zuen Lolok. Nekearen bizilekua zen bere gorputza, eta bizileku horren leihoetatik zihoakion bizitza. Eta baten batek aihotzez jo, ebaki izan balu bezala sentitu zuen bere burua ere... bizitzaren zementu-azalera horretan.

Pikondotxoari begira, haren sustraiak noraino lurperatzen ziren aztertzen hasi zen Lolo. Zainen harizpien hurrupadek bizitzeko adina bizipoz ekarriko ote zioten ala ez begira.

Eta haurtzarora jaitsi zen bere enbor horretatik, gazte denbora kurritu, familiaren pobreziak dastatu, drogak eragindako lehen bidaia hura eta... eta ez zen gelditu. Egunak eta egunak, gau asko egin zituen Lolok bere lurraren sustratuan.

Zeri heltzen dio pikondotxoak bizirik irauteko?

Euria ari zuela esnatu zen. Ez, ez zen goizetik. Gaueko hamarrak izango ziren, eta ziega bar-

nean utzia zioten afaria: erretiluan itsatsitako hanburgesa arrosa bi haiek. Zutitu, patioari so egin, tanta jariatzearen soinua aditu. Ura sustraietaraino jaisten da: ura elikadura.

Euria, tronpatuta-edo, beste aldera eroriko balitz, akaso izarrak bustiko lirateke, orain gu bezala?, galdetu zuen Lolok, pentsaera edo eldarnioa ote zen bereizi gabe.

Putzuetan gelditzen zen fokuen argi motel hura. Eta halakoetan Gloria zetorkion gogora. Bazirudien putzuek fokuek baino gehiago argitzen zutela. Gloria... Zena baino presoago zela sentiarazten zion Gloriaren oroimenak. Gloria... deus ere eduki ez eta dena galdu zuenaren sentipena.

Eta patioari begira zegoela ireki zuten ziegako atea.

– Manuel Medina Redondo. Gauzak bildu! Enfermeriako departamentura zoaz –esan zion medikua zirudienak, paperei begirik kendu gabe.

– Kalean utzi behar nindukezue. Ongi dakizue zuek hori... Ez dut enfermeriara joan nahi –esan zion Lolok doinu aseptikoz.

– Kalean utzi? Hiesa besterik ez duzu motel!

– Hiesa besterik ez! –Lolok, haserre indargez.

– Hies soilarekin ezin dizugu laurogeita hamabigarren artikulua aplikatu. Zuk ondotxo dakizu hori –begiramen ikaragarriaz argitu zion medikuak.

Ohatila batean eraman zuten enfermeriara.

Zehaztu ezinezko arbola-hostoak aurkitu zituen kartzelari batek ziega miaketan. Erretzeko belarrak ote ziren-edo antzeman nahian, hostoak usaindu zituen. «Drogaz beterik zagok kartzela hau!» pentsatzeko zorian egon zen kartzelaria. Baina zertarako pentsatu.

Euria egiten jarraitu zuen. Euria gau osoan.

Kartzelariek utzitako ziegan, ohe gainean zegoen Lolo. Bustita. Izerditan blai. Sukarrak, tentsio beherakadak, angustia hark ureztatzen zuen Lolo kanpotik. Barnean, sustraiak hurrupadatxo bat eman ezinik zebiltzan.

Eskua sabelera eraman zuen, saihetsezurretara, berriro sabelera, eta soin mehe hura ezezaguna egin zitzaion. Ahots gora hitz egin nahi izan

zuen, bere burua ezaguna ote zitzaion ikusteko agian. Nondik zetorkion halako hotza?

Ahapeka esan zuen:

– Madreee...

Amaz oroitu zen, edo haren irudia etorri zitzaion, tatuajean idatzirik zuena. Galdutako sosegua zuzpertu zitzaion, eta halaxe hartu zuen loak egun haietan.

Ziega batean, bakar-bakarrik sartu zuten Lolo Enfermeriako Departamentuan. Ez zioten liburirik eskaini, enfermeria enfermeria delako, eta ez liburutegia edo eskola.

Bakarrik zegoen... enfermeriara ez baita inor harremanak egitera eramaten. Eta, ziegako leihoa txapa zikin batek estaltzen zuelako, Lolok ziega aldaketa eskatu zuenean, ez zioten eskaera onartu, enfermeriara ez baita inor ekartzen «leihotik izarrak ikusi ahal izateko», zerbitzuburuak egoki adierazi zionez.

Irrati txiki bat zeukan Lolok. Eta huraxe asko.

Zenbat denbora zeraman Lolok enfermerian? Ez dakit. Baina han zen udazkena. Lolok ez zuen begi batetik ikusten.

Medikua oso noizbehinka baino ez zen Loloren ziegara joaten... dena kontrolpean baitzeukan. Odolak oxigeno falta zuela edo antzeko adierazpen atsegingarri bat eman zion medikuak.

– Normala duk hori, motel!

Udazkena haizearekin batera iritsia zela barneratua zuen Lolok. Ez zekien, ez zegoen seguru, ametsa edo errealitatea bizi zuen.

Haizea nabaritzen zuen Lolok. Baina haize hura, gehienetan, bere arnas hartzearen soinua besterik ez zen, begiak itxita hartzen zuen hatsaren orroa.

Hego-haizea!, esaten zuen. Zuhaitzek sentituko ote dute hostoen erorketa udazkenean?

Ardura horiek lasaitzen zuten Lolo, nahiz eta ametsen munduko ardurak izan. Hala baitziren. Ez zuen heriotzan pentsatu nahi, hil... hilko baitzen gero ere. Baina eskola graduatua titulua atera gabe zuela gogoratzen zuenean, penatu

egiten zen. Eta ardura hauek errealitatearen munduari dagozkio.

Bat-batean kezka batek asaldatu zuen:

Hosto iraunkorreko zuhaitza al da pikondotxoa?

Tantaz tantakoa jarria zioten. Loloren gorputzak ez zuen bestelako elikadurarik onartzen. Eta egarriak eraginda-edo, Lolok begiak zabaldu zituen. Hezur hutsa zen bere gorputza. Listua, zerbait, irensten saiatu zen.

Zein hilabete zen hura: urria?, azaroa?

Irratia entzuten zen ziega barnean. Esatariak zioena entzun zuen Lolok, interes handirik gabe. XVI. gizaldiko iragarpen batez ari ziren; ez, profezia batez.

– Mundua gaur bukatuko omen da, arratsaldeko bostetan –kontatu zuen emakumezko ahots batek.

Mundua bukatu? Lolo aztoratu egin zen, urduritu. Egun horretantxe bukatu behar al zuen munduak?

– Zer ordu da? –galdetu zuen.

Berri hura norbaitekin banatu nahi izan zuen. Urjentzia hura sortu zitzaion. Lolo agondu nahian

ibili zen, ezinean. Espetxeak abandonatua zirudien.

Deiadar egin zuen. Ez zion inork erantzun. Ez zen ezertxo ere entzuten.

Maldizio bat bota zuen ahapeka, indarrik gabe:

– Eraman nazala hondamenak!... baina geldi dadila pikondotxoa bederen –erregutu zuen Lolok.

Eta horrela gertatu zen.

Muxu bat preso gaiztoari

Itsas barnetik itsasertzera zetorren hodei taldea. Kostaldea begiztatu ahala atseden hartu behar zutela erabaki zuten; txoriek bezala ikusten dute hodeiek. Eta lurraren pare jaitsi ziren, tolesturetan kokatzeko, arnasa hartzeko, lokartzeko... Geldiune hauetatik barreiatzen dute landurra hodeiek, ingurua blaituz; hodeien loaldietan lokabetzen omen da xirimiria. Ez zuen inork euri hura espero, ezta Elenak ere. Ez udako egun haietan bederen.

Etxe aurreko lorategi bustia begiratu zuen aurretik igaro zenean. Palmondo zaharra ere blai eginda zegoen. Autoa hartu eta barrualdera jo zuen, itsasoa atzean utzita. Andaluzia itsasoaren eta eguzkiaren artean dago. Tarte horietan daude mahastiak eta olibondoak, mendilerroak eta basamortuak, jornalariak eta arrantzaleak, ekiloreak eta kotoia eta... Nork esan Elenari espetxean lana aurkitu behar zuela? Ez zituen hiru kilometro ere egin eta hantxe, urrutira, zeruak zabalagoa zirudien lekuan, espetxearen kupula

gorrixka begiztatu zuen; lur azalaren garatxoak dirudite kupula hauek.

Detailetan erreparatu gabe sartu zen espetxean, ez sofritzeko. Kontrolak pasa zituen han eta hemen, baina... ez etorriarena eginez bezala ibili zen batetik eta bestetik. Azkenean, erraietaraino sartu zen, kupula azpitik, moduluen azpitik, tailerra zeritzon leku iluneraino.

Presoak etorri zain zegoela inguratu zitzaion tailerraren kargu zegoen kartzelaria. Irribarre egin zion, «zu Elena izango zara» esanez batera seinalatu zuen atzamarrarekin. Arbelezko teilapean araba-zozoaren habi hondakinak zeuden; ura hormaren artean sartzen zen harri iragazgaitzetik barna.

Presoak tailerrera sartzen hasi ziren goizeko hamarrak inguruan. Metal-detektore baten azpitik zetozen bat-banaka; arretarik jarri ez balu bezala begiratzen zuen Elenak tailerreko ertz batetik. Belarri bat falta zuen ijitoa sartu zen. Ondoren sartu zen mutil gazte erkina, begiak erdi itxirik zituela, ondo ikusten ez zuen seinale. Bizar eta txima luzeekin, irla gabeko naufragoa zirudiena sartu zen beste bien atzetik. Eta beste bi

ijito; beste bi marokoar eta aljeriar; emakume ibilera zuen beste ijito bat, ile luze eta galtza estu-estuekin. Gehiago sartu ziren, dozena bat-edo, denak gizonezkoak, bat izan ezik. Eta azkena, gazte luzanga bat. Bakoitzak bere lekua hartu zuen.

Mahai batera hurbildu zen Elena, belarria falta zuen ijitoaren ondora; Armando zuen izena. Hurrengo mahaira joan zen gero, emakume ibilera zuen ijitoarengana; ispilu bat arraspatzen ari zen.

Eta horretan zegoela deitu zion kartzelariak:

– Ikusten duzu han hondoan dagoen hura?

Elenak harantz begiratu zuen, gazte luzanga zegoen lekura.

– Ez zaitez harengana inguratu!

Mahaitik mahaira jarraitu zuen Elenak, presoak ezagutzen, bere burua aurkezten. Irla gabeko naufragoa zirudienak Guallapu zuen izena. Kanariarra. Bera bai irla lur lehorrean... Elenak aurrera jarraitu zuen. Kartzelaria zegoen lekura begiratu zuen zeharka, hondora begiratu zuen ondoren, preso gaiztoaren aldera. Nekez iristen diren soak badira.

Hodei taldeak aurrera jarraitzea erabaki zuen nonbait. Ohiko formetara bueltatzen ziren altura hartzen zihoazen neurrian, tolesturak utzita; oilarra izatetik, zezen baten burua osatzera egin zuen hodeitzar batek; atzetik zetorrena berriz Afrika zen, txikia eta desitxuratua, baina Afrika; aingura egotzia zuen hodei batek, halaxe zirudien, altxa ezinik baitzebilen une hartan, eta abiatu nahi eta ezin hark hodeia ireki zuen, sabel aldetik ziurrenik, ingurua kresal urdinez estaliz.

Elenak ez zuen preso gaiztoarekin hitz egin, eta eguerdia pasata etxeko bidea hartu zuenean, itsas aldeko errepidetik, bazeraman jada bere barnean kresalak lainoztatutako gogo bat; hazi garaztatua ere halaxe ernamuintzen da naturaren legean.

Hurrengo egunean, autoa hartu eta, hodeien norantza jarraituz, lanera joan zen, espetxera. Hodeiak nola zahartzen ziren begira iritsi zen, preso gaiztoak berarekin hitz egiterik nahi izango ote zuen ala ez galdezka. Tailerrean berriro. Neguari zegokion argia eta usaina, isiltasuna. Teilatupeko presoen solasa biziduna zen, baina puntu bat arte. Zein arraroa zitzaion guztia...

Preso gaiztoaren mahaira joan zen orduan, sentipen haiek atzean utzita, eta agurtu egin zuen, etorri berrien modura. Preso gaiztoak begi bat zuen triste. Egurrezko kutxa margotzen zihardu en... Eta atzean utzitako sentipenak aurrea hartu zioten ostera ere.

– Zurekin hitz egitea debekatu didate ia-ia –esan zion Elenak.

Begi hura aztertzeko aukera hobea eduki zuen. Kutxan kosmosa ageri zen, izar andana handia galaxiak osatzen, kometak, izar usoak; lurra ageri zen, urdin, hodeien artean... Koloreak atsegin du begi barnean egotea; eta preso gaiztoak ondo margotzen zuen. Elenak berriro hitz egin zuen, eta konturatu zenerako eguerdia igaroa zen.

Etxeko bidean, itsas aldeko errepidetik, imajinen segadan erori zen pentsamendua; ikusi egiten zuen elkarrizketa, ez ordea asfaltoa, ezta inguruko mahasti sendoak ere. Bai, sentimenduen anabasan; sustraiek hil egiten dute hazia, baina sustraiek sortzen dute hostoa; hodeiek haizearen aurka ezin joan, eta borondateak ezin maitasunari eutsi.

Bide berri batetik joan zen hurrengo egunean, haizearen alde beti. Hodei bakarra ikusi zuen bidean, bere adinekoa gutxi gora-behera. Udako eguna zen, oparoa Andaluzian: lertxuntxoak elikadura bila zebiltzan goizeko freskuran. Ikusten zuenaren eta presoek ikusi ezin zutenaren artekoa bereizteari ekin zion Elenak, nahi gabe. Diferentziak neurtu, espetxeak berez sortzen dituen beldur txatxuak alde batera utzi –ezjakinak sortutakoak– eta espetxea benetan zer zen ulertzen hasia zen autoan, laurogei kilometro orduko abiaduran.

Zortzi t'erdietan iritsi zen espetxera. Jangela zeharkatu, egongela zirudien beste aretoa igaro... eta tailerra. Kartzelaria ere hantxe zen Elenarekin, hizketaldi hasi berrian, eta inor ez zegoela baliatuz, ziega bat ikusi nahiko lukeela adierazi zion. Giltza handia eskatzera joan zen kartzelaria. Bakarrik geratu zen Elena... eta sastada hura berriro ere. Hutsune handiko lekua zen, ordutegi gabea. Kartzelariarekin batera igo zen lehen solairura, hutsik zegoen ziega ireki zuen honek. O! Higuingarria zen! Komun zulotik

zetorren kiratsa! Krudela zen ziegaren estruktura bera.

– Hemen bizi al dira? –galdetu zuen, barrua lasaitzeko batik bat.

Tailerrera jaitsi ziren. Minduta Elena. Metaldetektore azpitik pasa ziren presoak, eta preso gaiztoa hondoko mahaira joan zenean, harantz jo zuen Elenak.

Elkarrizketa urrundik jarraitu zuten tailer barruko biztanleek, adi zeuden, halakoak baitira presoak. Hurbilen zegoenak, naufragoak, zatika entzun zuen elkarrizketa:

– ...ziega barnean... nola bizi... ezingo nuke.

– Bai... horretara... nahi ala ez hor... nor bizi da gustura antzeko...

– Zenbat espetxe... dituzu?

– ...eta gero hemen.

Goizak pausatzeko astirik eduki ez zuenez, aurrera egin zuen eguerdira arte. Etxeko bidean, itsas aldeko errepidetik, bi dioptriako malko bat irristatu zitzaion betaurreko azpitik: lurraz mintzatu zitzaion preso gaiztoa, askatasunaz, hainbat injustiziez, torturaz... Nolatan hura demokrazia?

Hilabetera... errepidetik itsasora, itsasotik hodeiertzera, hantxe, hodeiak kostaldera begira zetozen mantso ostera ere, neke forma nabarmenekin. Ezohiko uda zela zioten adituek estatistiken arabera. Estatistikaz ulertzen ez zutenek, lur eremu harritsuak adibidez, lore eta belar ugari sentitu zuten inguruan; bitxilore eta txilarra, basatxikoria. Euri langarrak jantzi zuen landaretza. Berdeak zuhaixkak, trinkoak kanaberadiak; hirusta zuri eta gorriak landazabaletan; belarminak, gorri purpurak, eta usobelar horiak belardietan; sahastiak hosto sinplez josita erreka bazterretan; sasitza sailak harrotuak udaberrian bezala. Elenak ikus zezakeen paisajea zen hura, Andaluziaz beteriko lur hura. Bere barruko loreen usain gozoa kanpotik antzeman zuenean ordea, eta koloreen olatuak sabelean, eta odolaren mugimenduak oroimenera imajina bat zekarrela edo zeramala egiaztatu ondoren, orduan... espetxera itzultzeko premiazko gogoa eta nahia izan zituen. Preso gaiztoak utzitako liburuan, barne orrialdeetan, poematxoa aurkitu zuen, euskal poeta baten poematxoa: *lanbroa zeukat gordeta... kaxa batean... hiretzat... eta eguzkia...*

hankak berotzeko... bakarrik bahago neguan... Eta halaxe egin zion eztanda maitasunak espetxetik urruti samar.

Biharamunean Elenak arin zeharkatu zituen ate eta korridoreak. Tailerrera iritsi zen. Poltsatik liburua atera zuen, poematxoa, ezohiko uda apurrak eta zigarro bat. Tailerrean barrena barreiatu zituen kea eta bestelako kezkak, haize korronte bat sortuz. Hamarrak eta hamarretan sartu ziren presoak tailerrera; Armando, Guallapu, Mohamed, Ali, Bufaloxikin, Lele... denak; hantxe preso gaiztoa ere. Tailerra zaintzen zuen kartzelaria bere bulegotxora joan zenean, Elena, hainbat alditan bezala, preso gaiztoaren mahai ondora hurbildu zen, liburu, poematxo eta maitasun eztandak irekitako zauriekin. Begi tristeak irri egin ziola iruditu zitzaionean azaldu zion gertatutako guztia, nahiz eta loreen usain gozoak eztarria narritatu eta aho sabaia urratu sabel barruko koloreekin. Orduan, maite zuela esan zion preso gaiztoari, belarrira, eta min egin zion aitormenak.

– Maitasunaz trufatuko dira zure lagunak? –galdetu zion–. Gorrotatuko al naute? Zer pentsatuko dute nitaz eta zutaz maite bazaitut?

Luze hitz egin zuten goizean zehar, bere hedaduran; eta honen mugetan, muxu bat eskatu zion Elenak, irailak inoiz usapal saldoak egunsentian eskatu zituen bezala... Izutu egin zen preso gaiztoa.

– Bai, hemen! –baieztatu zion Elenak.

Ezpainek elkar ukitu zutenean (o!, hodei haiek!; langarra tolesturetan), ortzadarra igo eta bihurritu egin zen mihi artean. Aldi berean, ikusi egin zituen tailerra zaintzen zuen kartzelariak. Preso gaiztoaren mahaira jo zuen, txistuka, fi-fi-fi, eta Elenaren parera iritsi zenean giltzak erori zitzaizkion; urduri zegoen.

– Pertsona aurrerakoia naiz –esan zuen, eta ulertzen zituela ez dakit nolako egoerak, eta eskerrak bera bezalako batek ikusi zuela hura, eta ez beste inork.

Eta fi-fi-fi joan zen txistuka berriz bulegora.

Hurrengo egunean ere espetxeko bidea hartu zuen Elenak. Errepideko edozein bihurgunetan itsasoarekin estropezu egiteko arriskua egiazkoa

bazen ere, itsaso asko baitago munduan, Elena beste arrisku batzuk kalkulatzen zihoan. Kezka haiekin iritsi zen espetxera. Gora begiratu zuen sartu baino lehen; itsasoa baino zeru gehiago dago munduan. Kartzelari ezezagun batek esan zion, misterioz beterik, Zuzendariak berarekin hitz egin nahi zuela goiz hartan. Zuzendariaren bulegorantz jo zuen zuzen Elenak, eta errepidean aurkitutako bihurgune berdinekin egin zuen topo. Han zen Zuzendaria, bide amaieran. Atea itxi zuen Elenak; aulkian eseri zen; Zuzendariak paper bat utzi zuen mahai gainean.

– Arazo larri bat dugu esku artean –esan zuen Zuzendariak.

Eta aurreratu zion presoa moduluz aldatu zutela behin-behineko neurri gisa.

– Elkarri muxu bat eman diozuela dio jaso dudan txosten batek.

Eztultxoarekin batera atzamar batekin ukitu zuen papertxoa Zuzendariak.

– Muxua ezpainetan izan zela dio informeak...

Elena presarik gabe joan zen bulegoko ateraino.

– ...era kreatzaileetan! –jarraitu zuen Zuzendariak.

Ate ondotik begiratu zion Elenak:

– Gaixorik zaudete –esan zion eztiki, eta alde egin zuen.

Ez zuen preso gaiztoa berriro ikusi espetxean, baina hodei taldeak kostaldean aurkitzen zuten atsedena. Ez zuen inork euri hura espero, ez udako egun haietan bederen.

Axur

Egunkaria idaztea zen Keparen ametsa. Idaztea ordea, eginkizun nekosoa zitzaion. Eta gainera, zertarako berridatzi bizi izandakoa? Behin bizitzearekin ez al zuen nahikoa? Baina hura zen bere ametsa.

«Goizeko hamaika t'erdiak dira» idatzi zuen estreinatutako agendan. «Itsasoa urruti ikusten da leihotik» idatzi zuen. Eta blokatuta geratu zen, urruneko itsasoari beha. Ez aurrera ez atzera. Ez da mugimendurik sumatzen, esan zuen bere kolkorako, idazten ziharduen ustean idatzi gabe. Nolakoak izango lirateke egun mutu hauek itsasorik gabe? Itsaso geldo hark oroitarazi zion bada, «Hilabete da ez naizela patiora irten». Horixe idatzi zuen, urrutitik itsasoak bueltatzen zion pentsamendua. «Bakarrik nago modulu honetan». Leihoak ez zeukan hegaletara ikusteko adinako neurria.

Estrategiaz hitz egiten zuen Gobernuak, arbelean eskema bat marraztu eta erabiltzen den modu berdinean...

Eta kontua da, Kepak patio ttiki bat zeharkatu behar izan zuela goiz hartan, medikuaren kontsultara joateko... eta zeru zati bat ikusteko aukera izan zuela bertikalean gorantz begiratuta... eta idatzi zuela «Hilabete da ez naizela patiora irten». Kontsultatik bueltan, pasilloko xendatik ziegara zihoala, zerbait mugitzen nabaritu zuen lurrean. Atzean utzitako patio ttikiaren aldera so egin, txorikumea hartu eta ziegara eraman zuen ezkutuan. Kurloikumea zen, lumarik gabea, artean begiak ireki ezinik zebilena. Neguko galtzerdi batez egin zion habia. Kotoizko habia ilunean moko horia ikusten zitzaion hari soltea bailitzan.

Zerbait aurkitzen dugunean, irizten diogu ez garela gu izan aurkituak izandakoak. Zergatik ote? Leiho bat, itsaso bat, txori bat.

Irratirik ezean, asmatu egiten zituen albisteak, beretzat eta txorikumearentzat; telebistarik ezean, imajinak; bisitarik ezean, elkarrizketak; lagunik ezean, adiskidea. Egunkaria ohar agenda bilakatu zen; ziega, Keparen unibertso bakarra.

– Jantzak, Axurmendi! –entzuten ahal zitzaion Kepari, eta txanpon txikiak poltsikoetan ateratzen duten soinuaren antzera egiten zuen kurloikumeak.

Esnetan bustitako ogi mamia ematen zion jateko. Pazientzia berdinarekin ikasten zuen kurloiak lengoaia berria.

– Beituxu, beituxu txoritxu!

Estrategiaz hitz egiten zuen Gobernuak, neska-mutil kartzelatuak nola birrindu...

Itsasoari begira koxkortu zen txoria. Itsasoari begira bota zituen ondo ahoskatutako lehen txioak. Itsasori begira hartu zuen txori kontzientzia, begiek itsas kolorea hartu zuten arte. Eta galtzerdi-habiatik jauzi egin zuen begi itsastarrekin, mundua ezagutzera; ziegako mundua, alegia.

Aldi berean, Kepa egunkaria osatzen joan zen, oharrekin, gogoetekin, pentsamenduekin, susmoekin... «Ez dut gutunik jaso azken hilabetean» idatzi zuen. «Nire gutunik ere ez omen da hara iristen». Burbuila baten barruan eduki nahi zuten, bakartua, mundutik isolatua. «Itsaso hori bezala nago» idatzi zuen oharkabean: «Itsasoak begiratzen dionari begiratzen dio». Axurmendi

kurloia zuen berak ondoan, lagun bakarra. Nola apur zezakeen itsasoak bere bakardadea? Arrunt isila zen ozeano hura, eta Tenerifek ez zuen itsasoratzen zen ibairik. Ibaiak paisajea begiratzen datoz itsas aldera. Herrixka, etxe edo baserria ikusten dute ibilbidean; zubi zahar, zubi berri. Eta baratzeak, zelaiak edo soroak nola dauden begira gelditzen dira, ur-geldiak eginez. Koloreak bereizten dituzte, zuhaitz motak zenbatu, txoriak sailkatu, usainak bildu. Eta horrela, ibaiei esker, itsasoak lurraren berri du. Baina Tenerifek ez dauka zeharkatzen duen ibairik... Askatasuna urdin kolorekoa sentitu zuen Kepak, urdina ñabardura askorekin.

Estrategiaz hitz egiten zuen Gobernuak, dispertsioaz, presoa askeago senti zedin...

Espeziearen luma arreak jarauntsi zituen kurloiak.

– Hegan ikasi behar duk, Axur –esaten zion Kepak.

Baina txoria salto garaian zegoen. Eta apaletik Keparen bizkarrera egin zuenean, lehen hegaldi urrats hartan, estreinako aldiz hegazti sen-

titu zen Axur. Kepak egunkarian idatzi zuen gertaera, gorriz, albistea nabarmendurik gera zedin.

Hegan ikasteko, patioa baino hoberik? Hezitzaile arduretan buru-belarri sartuta zegoen Kepa, baina, ai... errepresioak ustekabeak ditu.

– Patiora irteteko biluztu egin behar duzu. Zuzendaritzaren araua da –esan zion kartzelariak.

– Eta zertara dator orain arau hau?

Axurmendi ere lumatu egin beharko ote dute?

Kartzelariaren araua zen, eta ez zuten aldatzeko asmorik.

«Zitalkeria guztiak ez datoz Madrildik», idatzi zuen egunkarian, gorriz orduan ere, baina letra larriz.

Ziegako distantzia motzetan hegan ondo moldatzen zen Axur. Ziegako mundua txiki bilakatu zitzaion neurrian, leiho laukizuzenari begiratzen zion, urruneko itsasoari. Ongi aski dakigu leihoek begiak erakartzen dituztela beraien bi aldeetatik. Eta halaxe joan zen leihotik, mundua ezagutzera... Baina aurreko sare metalikoan, erdi aldean, zurrun gelditu zen, telefono zutoina-

ren erdi aldean ihesi dabilen katua gelditzen den bezala.

Azkar erreakzionatu zuen Kepak, txoriaren hegaldi traketsa jarraitu eta sarean katigatuta ikusi zuenean.

– Hator bueltan, Axur. Polita egiten duk hor, sarean jarrita!

Axurrek, lehen ikarak gaindituta, ingurura begiratzen zuen. Gora eta beheraren dimentsioa beste bat zen. Alboak aurre eta atze izan zitezkeen aldi berean, eta zerua... zerua mugagabea zen!

Lehen egun haiek igarota, ziegara bueltatzen zen, nekez, gosea berdintzera. Eta berriro joaten zen leihotik, leihotik sarera, saretik zuhaixka baten gainera. Eta horrela egun bat eta beste bat, hilabetetan. Denbora gutxian asko aurreratu zuen, eta ez hegan bakarrik. Haizearekin jolasten aspertu zenean, ilunabar batean, orduan, Keparen eskuan pausatu zen Axur. Zerbait zekarren mokoan, formarik gabekoa, gari alea baino handixeagoa.

– Zer dakark, Axur? –eskuan utzi baitzion formarik gabeko ale hura.

Askatasun pittin bat zen, gari ale baten neurrikoa, baina askatasuna. Kepak txintxeta kaxa hustu eta bertan sartu zuen askatasun izpi hura.

Alez ale, txintxeta kaxa askatasunez bete zuen kurloiak. Eta Kepak, behartuta, ezti poto batean sartu zuen dena. Ezti potoak barrukoa ikusten uzten zuen, gardena baitzen. Baina askatasuna ez da lehenengoan ikusten ahal den zerbait. Askatasunak bere irudikeriak ditu.

Ezti potoa bete zenean, zapata kaxa batean sartu zuen askatasun piloa. «Nola senti naiteke pozik espetxean?», idatzi zuen gogoetaren laburpen gisa. Aberri zaharra, hizkuntza, izateko gaitasuna, bizitzeko grina, borrokatzeko borondatea... Nola ez pozik gurdi hari bueltaka! Baina Keparen poza gustura egotea ere bazen. Eta kartoizko ur kaxan sartu zuen Axurrek mokoan ekarritako askatasuna, arakaketak burlatzeko gehienbat. Han zegoen sekretua, askatasun metatze hartan.

Kepak ur kaxan eskua sartu eta atzamar bat eraman zuen ahora. Zeren zaporea du askatasunak? Espetxean, eta antzeko lekuetan, herri zapalduetan, esperimentatzen da askatasunare-

kin. Ez bat, kartoizko ur kaxa bi ere bete zituen Kepak. Ai... deskuidoan ez da ezer gertatzen.

Estrategiaz hitz egiten zuen Gobernuak, gupidarik gabe ematen zuen zartada.

Arakaketa egitera hogeiren bat kartzelari etorri ziren, arakaketa orokor horietako bat. Ziega goitik behera miatzen ari ziren: ohea desegin, apal gaineko liburu eta karpetak ohean ihaurri... eta dena arakaturik zegoela zirudienean, kartoizko ur kaxetako batean zer zegoen begiratzea bururatu zitzaion kartzelari bati.

– Hemen, hemen! Laguntza!

Errekisatu egin zizkioten kartoizko ur kaxak, eta sumario bat ireki, «kartoizko bi kaxetan gorderik zuen askatasunaz baliatuz ihes egin nahi zuela» akusaturik. Eta gainera zigorra: hogei egun koltxoirik gabe, hiru hilabete tabakorik gabe, eta leihoa txapatzar batez itxirik. Itsasoak ez zuen errurik. Itsasoa nola utzi leihorik gabe!

Axur leihoaren kontra fusilatu zuten 1991ko irailaren 27an. Lau t’erdiko karabina batekin hil zuen jagoletza lanetan ziharduen polizia batek.

Lekukorik gabe, Kepak azken esaldi hau idatzi zuen egunkarian: «Askatasuna hor dago, hartzea besterik ez zaigu falta. (Axur)».

Estrategiaz hitz egin zuen Gobernuak, eta ez da oraindik isildu!

Koldo Izagirreren eleberria

Kepak minutu pare bat darama kartzelariarekin eztabaidan.

– Ez didazu ulertzen...

– Ulertzen dizut.

– Ez, ez didazu ulertu nahi. Moduluan telefono deia onarturik nuen, eta oraindik onarturik jarraitzen du. Hots egin beharra daukat. Derrigorrez deitu behar dut etxera, bidaia alferrik...

– Ez jarraitu! Ongi ulertu dizut. Baina ezin duzu dei hori egin, isolamendu ziegan zaude!

– Eta?

– Nola eta? Isolamendu ziegetan ezin da deirik egin! Ezin da bizarra mozteko aitzurrik eduki! Ezin da inola ere esnerik, pilarik, eztirik, galletarik ekonomatoan erosi! Ezertxo ere ez! Horiek dira arauak.

– Bai, baina...

– Ezin Da Telefono Deirik Egin! Zigorturik zaude!

– Baina nire gurasoak ez daude zigorturik. Eta nirekin hitz egiteko eskubidea dute! Ala ez?

Kartzelaria zalantzatan geratu da:

– Tira... zure gurasoek... eskubidea...

Ez du Keparen alde erabakirik hartu nahi. Eztabaidaren ondoren amore ematea, aginpidearen printzipioa kolokan jartzen dela esaten baitute akademiako liburuxkek.

– Zerbitzuburua jakinaren gainean ipiniko dut, eta hark erabakitzen duena jakinaraziko dizut –amaitu du.

Cadizko lurretan espetxea idor dago abuztuan. Kartzelariak kolpe lehorrez itxi du burdinazko atea. Galeria osoan entzun da durundia. Sarrailaren hotsa, berdin.

Goizeko hamarrak pasatxo dira. Txapeo-borroka uztailean hasi zenetik, Josebak hamarretan hasten ditu kirol-ariketak, eta Kepak arnasaldi luze eta ozen haiek ezagun ditu, nahiz eta zazpi ziega harantzago egon. Isiltasunak soinua eta zarata garraiatzen ditu isolamendu ziegetan; inork ez daki nola.

Luis, gure Luis, Keparen aldamenean dago. Beñat berriz, lau ziega urrunago, Josebaren ondoan. Guztira lau lagun, lau kide, lau euskaldun.

Eta isiltasuna galeria osoan hedatu denez, galeria osora hedatu da elkarrizketaren zalaparta.

Hiru urrats t'erdi eta leiho azpian; hiru urrats t'erdi eta kangrejoaren aurrean. Eltxo bat, Keparen joan-etorriak kalkulatu ondoren, barne kaiolako burdina artetik irtetera doa. Huts egin du, hegaldian supituki aurrez aurre aurkitu baitu Keparen ahurra. Orduantxe entzun dira urratsak: nabarmen, hurbil, argi. Kartzelariak Keparen atea zabaldu du berriro.

– Zerbitzuburuak entzuteko baimena besterik ez dizu onartzen.

– Zer arraio da «entzuteko baimena besterik ez!» hori?

– Zure gurasoak dira hitz egiteko aukera daukatenak... eta zuk entzutekoa besterik ez.

– Baina bidaia alferrik...

– Ezin Duzu Telefonoz Hitz Egin. Argi dago!

Kartzelariak alde egin ondoren, leihora hurbildu dira lagunak. Zorutik metro laurogei inguruan dago leihoa. Ohe gainera igo behar, beraz, leihotik solas egiteko. Barre batzuk entzun dira ziegetan. Preso zaildu, beterano edo akuilatuek

badakite su mota batzuk umorez bakarrik itzaltzen ahal direla.

– Hi, Kepa! –oihu egin du Luisek, alboko ziegan egon arren–, Kepa-Mutu deituko diagu hemendik aurrera... kar-kar-kar!

– Ganorabako hori! Ezin zaik inora ekarri! –Beñatek.

Kepak, leihoko barroteetara helduta, txapazulodunaren artetik begira dagoela, hodei mehe batean jarri ditu begiak. Hodeiak gelditzeko planta egin du.

– Hau kontatu eta ez ditek sinesten! –Keparen ahots leunak txantxari utzi dio lekua, eta hodei meheak, txaparen zulo artetik jarraitu du, zuloz zulo bere luzera osatu arte.

«Zazpi zuloko hodeia» esan du. «Ez, zazpi zulo t'erdi» zuzendu du, eta jaitsi egin da ohe ertzeko apaletik; burdinazkoa hau ere: ate, mahai, ohe, leihoaren modukoa.

Isolamendu ziegak eraikinaren goialdean daude Puertoko kartzelan. Kupularen azpian, ezker-eskuineko galeriak dira isolamendu modu-

lua. «Kupulara noak hamabost eguneko zigorra betetzera» esan ohi da. Baina usategia izenez ere aipatzen da: «Usategira igo ditek Felipe, biluzteari uko egin diolako».

Ziegan sartu eta aurrean, leiho parean, beste ziega baten leihoa aurkituko duzu hiru metrora. Aurrean dagoen modulu bikiari dagozkion ziegak dira. Tren batean geldirik egon eta, parean, beste tren bat balego bezala jarriak daude leihoak eta ziegak: buruz buru. Hamar ziegako bagoiz osaturik dago modulua. Ziegako leihotik beraz, aurrekoa ikusten da... eta teilatu zati bat. Teilatutik gora, zeru-zerrenda... flamenkoek lekualdaketarako baliatzen duten bidezidorra.

Afaria zazpi t'erdiak inguruan ekartzen du preso batek. Galeriaren hondotik hasten da banaketa. Lehenik Joseba, gero Beñat. Jarraian Kepa eta azkenik Luis. Atea ireki eta kaiolako ateak behealdean daukan zabalduratik hartzen dira plastikozko platerak. Lurreraino makurtu behar izaten da, beraz, honelako ziegetan jan nahi bada, gutunak irakurri nahi badira, *Egin*ak hartu, telegramak bidali, edozein abisu, zernahi gauza.

Zortziak inguruan, platerak garbitzearekin batera, lehen oihu, deiadar, ziriak. Txolarreak ere bueltan daude ordu horietan, eta egun osoan isildutakoak botatzen dituztela dirudi. Zalapartatsuak dira txio eta txorrotxioak. Ozenak. Burrunbatsuak. Amorratuak. Txolarreek zer pentsatuko ote dute presoez? Kontu bera agian?

– Hi, Luis! –Josebaren txantxak betiko esaldiarekin hasten dira–. Hi, Luis, Markesaren pare bizi haiz! Bainu-bata besterik ez zaik falta!

– Bai horixe –kontent irriarekin batera Luisek–, eta txakur-txar gonazale bat!

Hizketaldia, kalaka edo batzarra, bederatzietan hasi ohi da. Egunak utzitakoari errepasoa. Egunak ekarritakoari kritika. Egunak lagatakoari adarjotzea. Ilunabarra ez da inoiz esku-hutsik ailegatzen. Ilunabarrak itzalak dakartza, itzalek gaua. Gauak izarrak, eta izarrek argitxo urrun haiek... gaua hobeto ikus dadin, ziur aski. Analisiak, sentimenduak, pertsonak, argi berdinarekin argiztatuak daude usategian.

Kepak ziega-aldaketa eskatu zuen aste hasieran, antza denez. Arrazoi batengatik edo besteengatik ez da aldaketa hura gauzatu. Denek

entzuteko moduan hitz egiten du Kepak, baina txolarreek, oraindik ere habia-lapurretan zalapartari, ozenago mintzatzera behartzen dute.

Bere ziegak burdin uztaiak ditu, eta ohea, lastairarik ezean, burdinazko xafla zuloduna da, pixak eta kakek belztutako xafla... preso zigortuak eskuetatik eta hanketatik lotzen baitituzte bat, bi eta hiru egunez. Beharrak han bertan egiten dira, soinaren gainean, etzanda, buruz behera askotan; zikinak lehenik bero, gero hotz. Ziega hauetan ez da pertsona kaltetzen. Bizia kaltetzen da. Puerton, gezurrik ez dago, gizaldietan aurreratua dago giza-eskubideetan.

Garrantzizko gairik ez badago, bitan banatzen da elkarrizketa. Luis eta Kepa alde batetik, Beñat eta Joseba bestetik. Ahotsek beste doinu bat hartzen dute orduan. Hormen, burdinen, alanbreen artean xuxurlek eta errekek sortzen dituzten doinu apetatsuen legez, batzuetan igo egiten da zurrumurrua, besteetan berriz ia isildu arte jaitsi. Ederra da euskara horrela entzutea. Euskara erreka, euskara ura, euskara kuttuna.

Leihora hurbildu baino lehen, eltxoak hiltzeko pastilla, Fogo, metxeroaz erre du Beñatek. Ke zi-

kina, sarkorra botatzen du, baina eltxoak urrutiratzen ditu, baita hil ere. Eta horrek lasaitzen du.

Beñatek euskara entzutea maite du. Hala ere, hizkuntzaren gainetik dagoen beste zerbaitek deitu, erakartzen du. Baina zerk?

– Euskara entzutea ederra duk. Baina hemen, espetxean, kutsu berezia hartzen dik. Ez zaik iruditzen?

Josebak ere sentipen hori dauka. Zenbatetan ibili ote du ideia hura bueltaka... aurreko pareta-ko dragoitxo baten mugimenduari begirik kendu gabe. Beñat aurrean balego bezala hasi zaio hizketan eta keinuketan.

– Bai, kutsu berezia... –hausnarrean lagundu dio dragoitxoak ere–. Begira, hi Beñat haiz, ni Joseba. Han Kepa eta Luis zeudek. Izenak kenduz gero, zer diagu? Lau euskaldun! Lau euskaldun Cadizen euskaraz hitz egiten, Beñat. Espetxean. Zulo honetan... euskaraz. Mila bederatziehun eta laurogeita hamaseigarren urtean euskaldunek askatasunaren, justiziaren alde borrokan jarraitzen duten seinale. Etsi gabe. Euskaraz entzuten zigutek hormek, patioak eta ziegek. Euskaraz higitzen sumatzen gaitiztek kartzelariek. Leihotik

leihora euskaraz ukatzen diagu. Lur honek badik gure berri. Euskal Herria bizi duk. Ez gaitiztek oraindik ezabatu. Herri zahar hau bizi duk, Beñat; gugan bizi duk...

Dragoitxoak bitan egin zuen korrika eltxoen atzetik; bitan egin zuen ehiza.

– Historiak horrela jasoko dik hemendik ehun urtera –jarraitu du Josebak–. «Puerto de Santa Marian euskaldunak, abertzaleak egon hituen lehengo mendean». Aberrian gaudek, Beñat... urrun egonik ere.

Beñatek ez du aurreko horma argi ikusten. Agian ilun dagoelako, agian begiak lausoturik dituelako. Zirraratsuak dira Josebaren gogoetak. Ederra da mezua; eta txapeo-borroka, odol beroz, gogo indartuarekin hartu du. «Bai, hizkuntzaren gainetik badago beste zerbait gehiago» oldoztuz, izar bat txapa arteko zulotxoetatik begiztatu du.

Luis eta Kepa beste aldean senti daitezke. Ilargia zeru-zerrendatik gertu, bere argiak espetxea zakartzen du. Zenbat ertz, bazter, zokondo, angelu zuzen eta oker itzaletan estaliak.

Itzal-joko horiek atsegin ditu Kepak... sustagarriak. Eta gaua margolaria da tarteka: itzalen ehiztari. Flamenkoak entzun eta ikusten lehena da Kepa. Laino artetik ilargiak bere gorputz erdia kanporaturik duenean ere, Kepa da ohartzen lehena. Lorazaina izandakoa: samurtasun berarekin zaintzen ditu gaueko biztanleak. Flamenkoak bereziki.

Nondik datoz flamenkoak? Ez, flamenkoak joanean dabiltza Keparen fantasian. Eta flamenkoak beraiek, laurak, izan zitezkeela irudikatzen du. Gauero ibiltari. Ez al da joaten bera bada Iratxeren ondora gauero? Bai. Eta, ez al da gurasoengana joaten, anaiatxoarengana? Bai, maiz joaten da. Ez al da borrokara joaten gauero, inoiz baino gehiago bultza behar den sasoi hauetan? Bai, joaten da, baina ez da gelditzen... «Geldirik nagok hemen» berresten du, gogoeta nola jarraitu jakin gabe.

Hamaiketan, kartzelariek argia itzaltzen duten orduan barneratuko dira laurak. Hamaiketan etengo dute solasa. Ilunean ziegan ibili, ohean etzan. Lotarako orduak dira.

Luis leihoko barroteei besarkatuta dago orain.

– Hondartzan ibiltzeko giro ederra zagok, Kepa. Tira, ibiltzeko eta... galtzeko ere bai, noski.

– Galtzeko joerarekin habil hi!

Konfiantza adierazten du Luisen irriak. Barre egiten dute, eta barrezka agurtu dute elkar.

– Gal hadi ziegan, Kepa! Kar-kar-kar!

– Bai, badaezpadakoa egina hago hi ere!

Kepak gustura emango lioke aukera hori. «Hamasei urte Debako hondartzan ibili gabe» adierazten du oraindik urratu gabeko irribarreak. «Hamasei urte galdu gabe, neskatxarik laztandu gabe, maitasunik egin gabe: hamasei urte». Irribarrearen keinua geratu zaio aurpegian. Keinua bakarrik. Zertaz arranguratuko da bera? Lau hilabete, bost, daramatza neskalaguna laztandu gabe, neskalagunak bera laztandu gabe. Gauari, gaueko biztanleei, flamenkoei baino samurtasun handiagoa eskaintzen dio Kepak Luisi.

Bi minutu falta dira hamaiketarako. Bero da, iturriari bere urak edatera behartzerainokoa. Eltxo batek izterrean zizta egin dio odol-gose, baina Luisek alferrik bota dio eskua.

Abuztuak zortzi ditu. Afal orduan sekulako zalaparta entzun da aurreko ziegetan. Zigorturik dakarte preso sozial bat. Luisen pareko ziegan preso bat indarkeriaz sartu dute. Ziega berezia da hori. Ez du komunik. Ez konketarik. Ez urik. Ez koltxoirik. Bai ordea burdin uztaiak, argia gau eta egun pizturik... eltxoen habia. Zikinaren erresuma.

Presoa jipoitzen ari dira, eta presoak garrasi egiten du, lazgarri, ozen. Euskaldunak leihora atera dira, oihuka, aski dela esanez.

– Zer gertatzen da hor! Aski da! –aldarri egin du Josebak–. Luis!, zer arraio gertatzen da hor?

– Norbait jipoitzen ari direla argi zagok. Aski da! Aski da, ostia!

Kartzelarien garrasiak entzuten dira orain.

– Jar hadi buruz behera. Buruz behera esan diagu!

– Ez, buruz behera ez...

– Buruz behera!

– Ez lotu, ez lo...

Etzanda eta buruz behera, eskuak uztaietan loturik utzi dute presoa. Intziriak entzuten dira.

– Hi, Luis –Josebak berriro ere–, hik ondo daukak. Galdetuiok nor den, zer gertatu zaion...

– Hi!, mutikoa! Nor haiz?

Ahots-liparra irten da ziega barnetik:

– Kamara! Kamara nauk!

– Hi, Joseba –Luisek berehala–, Kamara duk.

– Nor? –galdetu du Beñatek.

– Kamara, caboverdetarra! –argitu dio Kepak.

Kamara Cabo Verdeko gizon gaztea da. Hogeita hamar urtekoa. Beltza. Ezkerreko belarria falta du eta, urritasun horrengatik-edo, beti txanoa eramaten du buruan. Txano sorta dauka. Larruzko txano beltza, eskoziarra, safaritan erabiltzen duten horietakoa, zuria. Denak handi samarrak, belarriaren hutsunea estaltzeko modukoak.

Afaria banatu dute, eta Kamarak loturik jarraitzen du. Luisek deitzen dio tarteka. Kamarak ez du gogo onez erantzuten. Bere ziegaren atea zabaldu dute bat-batean.

– Aska nazazue... arren. Aska nazazue! Ezin dut arnasarik hartu...

– Lasai, gizona. Lasaigarri bat xiringatuko dizut eta gau osoa lotan igaroko duzu.

– Ez! Injekziorik ez! –Kamararen ahotsak beldurra adierazten du.

Medikua, medikua da! Arraioa! Medikua ere sartuta dago, torturan sartuta leporaino.

Intziriak entzun dira berriz. Luisek deitzen jarraitzen du. Denbora gutxira zurrungak entzun dira; keak leihotik ihes egiten duen antzera datoz Kamararen zurrungak. Eta isolamenduko modulutik gora, zeru zerrenda zurrunga-keaz koka-ahala bete da.

Hori guztia hamaikak baino lehen. Hamabietan itzarri da Kamara. Oihuka. Etsi-etsian laguntza eske. Egarriz. Kartzelariei deika. Gorputza minberatua.

Hurrengo egunean askatu dute; eguerdi aldean ‘aske’ da. Bere duintasuna hiltzear dagoela, inoiz gorrotatu ez zuen bezala gorrotatu du Espainia, erraietatik. Eta negar egin du, zuk eta nik bezala.

Abuztuaren bederatzian jakin dute Bittor ere ekarri dutela isolamendura. Bigarren modulutik ekarri dute, eta isolamenduko beste aldean sartu dute, bere lagunekin harremanik izan ez dezan.

Kartzelari mozkor batek ate joka zirikatu du goizeko kontaketan. Bittor ez da isilik geratzen den horietakoa.

– Zer arraio gertatzen da! Beti alukeriatan!

Esaldiak kartzelaria sumindu du, antza. Beste sei kartzelarirekin igo baita. Bittorren ziega-atea zabaldu eta sekulako sesioa sortu da.

– Isolamendura orain!

Modulutik isolamendura daramatela, bultzaka, hilko dutela mehatxuka, hienak dira kartzelariak, ez pertsonak. Hiena gosetiak. Eta biktima bat daukate eskuartean.

Biluzteko agindu diote isolamendu ziegan. Bittorrek ez du biluzketa onartu, biluzketak legez kanpo daudelako.

– Biluzteko esan diagu, putakumea! Akabatuko haut! –belarrondoko bat eman diote, gero beste bat–. Madarikatuak zuek! Marikoia! Hire arrazarekin bukatuko diagu guk!

Belarrondoko bat bestearen atzetik. Ostikada barrabiletan. Ez, agindu guztiak ez datoz Madril-dik. Ez horixe!

Arropa guztia kendu, lurrera bota, zapaldu eta azken zaplatekoa emanda alde egin dute hienek. Bittorrek gose-greba hasi du.

Ostiralarekin da abuztuak bederatzi. Luisek, Kepak, Beñatek eta Josebak ohar bat jaso dute lehen orduan. Bittorrek bere egoera azaltzen du. Hitz gutxi dakar oharrak, benetan zehatza.

– Ez dut uste luzamendutan ibili behar dugunik –tenore ahotsa dauka Luisek goizetan–. Lehenbailehen salatu behar dugu Bittor jipoitu izana.

– Ados nago –Kepak ondotik–, tratu txarrak daudenean gure erantzunak berehalakoa izan behar du. Gisa honetako tratuak ez ditugula onartuko adierazi behar diegu.

– Orduan, Bittorrek dioen bezala, modulura jaitsi arte luzatuko dugu gose greba? –Beñaten kezka–. Edo muga ipiniko diogu protestari?

– Sarritan jardun dugu honetaz. Hiru egun, bost, gehienera zazpi egunekoa izan behar du

barauak. Bestela beste borroka batean sartzeko arriskua dago –amaitu du Josebak.

Batzarretik ohar bat irten da. Bittor modulu berean dago, lagun taldetik hogeita hamar metro eskasera. Baina oharrak lau orduko zeharbidea hasi du: «Bittor, jaso diagu hire oharra. Gose greban gaudek gu ere, eta protesta jarrera gurekin batera amaitzea komeni duk. Modu horretan salaketa jarrera biribilduko diagu. Ados? Guk hamalauan utziko diagu gose greba, bost egun egin ondoren. Hamabostean jaten hasi, Bittor. Hirekin gaudek. Besarkada bat».

Taldeak uko egin dio gosaltzeari.

Bittorrek arratsaldean izan du oharraren berri. Gauean buruz errepikatu du oharrak zekarrena, eta «hirekin gaudek» esaldiak biziki zirraratu du.

Leihotik begira, ziega eta sabela hutsik dituela, txapa zulodunaren artetik ikusi du ilargia. Hodei biren artean dago, erortzeko arriskuan.

Pasaia hartu du Guardia Zibilak. Irteera eta sarrerak kontrolaturik daude. Orereta, Altza, Doni-

bane, Intxaurrondora arte hedatu dute bigarren mailako kontrol-neurria. Oiartzun, Hernani, Donostia, Andoaingo herrialdeak hartzen ditu hirugarrenak.

Urteetan dabil Guardia Zibila Euskal Herrian lanbide berean. Handia da urteetan bildutako esperientzia. Atxiloketa-teknikak findu eta hobetzeaz gain, sena daukate, esperientzia horrexek emana, hain zuzen.

Pasaian bertan harrapatzea zail samarra iruditzen zaio Roni.

– Hauek ez dituk hain leloak –esan du Ronek, informazio-talde bateko arduradunak.

Bost arduradunek osatzen dute taldea, eta arduradun bakoitzak bost kide gehiago ditu bere agindupean. Horiek jende artean infiltratzen dira, ikasitakoak aplikatuz. Denetara hogeita hamar guardia zibil sekretu. Gehi errepideko kontroletan dabiltzanak... polizia kopurua itzela da.

Arduradun koordinatzaileak Ronekin hitz egin nahi du. Elkarrekin biltzeko oharra utzi du: «Betiko tabernan, betiko herrian. Karpi». Eta elkartu dira.

– Zer moduz andrearekin, Ron?

– Zinemara joan nahi zuen atzo, pelikula erromantiko bat ikustera. Niri ez zaizkit pelikula erromantikoak gustatzen. Ez zaizkit pelikulak gustatzen. Eta esan nion: «Eramango zaitut, zuk ikusi, nik hanburgesa bat jango dut kanpoan, eta gero kontatuko didazu». Negarrez hasi zitzaidan. Ez nuela jadanik maite, esan zidan. Badakizu, pitokeria horiek. Eta banandu egin beharko dugula. «Zuk nahi duzuna» esan nion. Zer esan behar nion bada? Eta berak esan zidan: «Ikusten?, jadanik ez nauzu maite». Eta zinemara joan behar izan nuen...

– Eta zuk ez duzu zinema gustuko.

– Ez, badakizu...

– Badakit, bai... Baina gatozen harira, Ron.

– Bai, harira...

– Ia astebete daramagu morroi horren bila, eta ez da inon ageri. Zer iritzi duzu?

– Informazio berri bat lortu dugu gaur goizean. Morroia inguru hauetan dabil. Etxeren batean ezkutatuta egongo da, baina era berean... mugitu beharrean dago. Pazientzia da gure armarik sendoena. Aterako da zulotik eta eroriko

da gure sareetan. Eroriko da! –eta mailu bat izan da mahai gainean jotako ukabilkada; jendeak begira geratu zaio.

– Lasai, Ron. Inguruan badabil, harrapatuko dugu. Zu lasai...

– Zertara dator hitzordu hau? Zerbait gehiago daukazu eskuartean! –garratz moztu dio Ronek.

– Bai, bada zerbait gehiago...

– Bota.

– Denok jakinaren gainean gaude Galindoren gizon leiala zarela.

– Eta?

– Hori ez da arazoa, Ron... GAL afera baizik. Badakizu zertaz ari naizen. Goikoek ez dute nahaspila gehiago nahi, Ron. Eta zu denen ahotan zaude...

– Esadazu aurpegira –Ron kontrola galtzen ari da–, esadazu aurpegira: eta zer!, denon ahotan banago, zer? Espainiarengatik eginak dira! Beraiek agindutako ordenak ziren, Karpi!

– Badakit, neu ere horretan nenbilen. Denok genbiltzan.

– Denok genbiltzan, bai. Baina Galindoren leiala ni bakarrik omen naiz, eta orduan...

– Goikoek zu kargutik kentzea erabaki dute, Ron. Denboraldi labur baterako bakarrik, Ron. Ulertzen? Denboraldi labur baterako...

– Denboraldi labur bat –bota du arnasestuka–. Denboraldi bat... Karpi, kaka gara! Kaka zahar bat!

– Ez jarri horrela...

– Kaka zahar bat, Karpi!

– Ron...

– Kaka zahar bat!

– Ron... azken lana duzu hau... tipo horren atxiloketa...

– Jo eta akabatuko dut putakume hori, Karpi! –eta Koldo Izagirreren izena garunean markatu zaio, burdina goriz xakitu baliote bezala–. Jo eta akabatuko dut!

Kontuak astebete lehenago hasi ziren, abuztuaren bigarrenean.

Goizeko orduak ikasteko erabiltzen ditu Beñatek. Abuztu heldu berriak ez zekarren aldake-

ta handirik, hozberoari zegokionez behintzat. Uztailak utzitako jalgia ziren mahai gainean pilaturik zeuzkan *Egin* egunkariak. Uztailak abuztuan utziak zituen bestelako hondakin asko ere. Dena dela, uztailaren arrastoa abuztuan barneratu zen, baina ez gehiegi. Hilabeteek ez baitituzte egunak nolanahi uzten. Dagozkien egunak zenbatuak dituzte.

Beñatek apunteak hartu zituen: *Idaztankerak*. Burua ordea, bezperako arratseko eztabaidan zeukan, kideekin afaldu ondoren edukitako berriketaldian. Ekintzak eta atxiloketak. Hurbilketaren iruzurra. Herri Batasunaren adierazpenak: ez zirela epaile espainolaren aurrera agertuko, ezta Auzitegi Gorenak eginiko deia aintzat hartuko ere.

«Uztaila euritan soilik izan da urri...» pentsatu zuen Beñatek, eta noraezean zihoan eltxoa, zapla!, eskuan zehatuta gelditu zen, «...eta eltxotan ugari» amaitu zuen gogoeta, ateraldiak eragindako irribarrearekin batera.

Apunteak utzi, *Egin*ak baztertu eta bezperan irakurtzen hasitako eleberria hartu zuen, arratsalde-pasan. Ziegan hogeita lau ordu irten gabe

egoteak bere alde onak dauzka. Hau edo bestea egiteko akordiora irits daiteke ordutegiarekin.

Begiak liburuan pausatu eta gutxira sumatu zituen urratsak. Galeriatik zetozen: kartzelari bat baino gehiago. «Katxeoa!» pentsatu eta esan zuen ahapeka. Bi pauso emanez jarri zen leihoan.

– Hi, Joseba!

– Bai, entzun ditiat. Miaketa, ziur aski.

Luisen ziega da lehena. Atea ireki, barne kaiolako atea zabaldu eta Luis aterarazi zuten, aginduak aurreztuz. Segundo batzuen ondoren, klank-klank-klank!, burdin hotsak. Barroteak frogatzen: ebakita edo herdoilak janda ote zeuden begiratzen, klank-klank-klank!

«Leihoei begira soilik», bere artean esanez lasaitu zen pittin bat Beñat; ez soberan, miaketak beti baitira faltsuak.

Luisen atea itxi zuten. Keparena ireki, klank-klank-klank!

Hurrengoa bere ziegaren txanda zela pentsatuz, eleberria irakurtzeari ekin zion berriz, zer irakurtzen ari zen ere jakin gabe.

Sarrailaren hotsak «hemen gaude!» adierazi zuen. Lehenengo atea zabalduta ere, zein kartzelari den jakitea zaila izaten da. Kaiolako atea, kaiola bera, zulo ttikiz osaturik dagoelako, leihoko txapa zulodunaren antzera. Bigarren atea ireki zutenean antzeman zuen Beñatek kartzelari gazte bat. «Nazkagarrrriena!» bota zuen Beñatek, erre batzuk gehituz.

Galeriara atera zuten. Kartzelari gaztea barroteak jotzera zihoan bitartean, beste batek gainbegirada eman zion ziegari. Barroteak jo ondoren, klank-klank-klank!, kartzelariek beraien artean hitz egin zuten.

– Badiagu zerbait orain ere –esan zuen Beñatek, kartzelariek entzuteko moduen.

Eta halaxe izan zen.

– Beñat! Beñat Armentia! –oihu egin zuen kartzelari gazteak.

– Bai...

– Liburu gehiegi dituzu ziegan. Nola liteke?

– Ikasketa liburuak dira eta...

– Ez!, ez denak! –harro moztu zion nazkagarriak.

Beñat ez zegoen galdera-erantzuna joko antzuan murgiltzeko umorez.

– Liburuak hartu nahi al dituzue? Bada hartu!

– Eta eskuetan duzun liburu hori, norena da?

Beñatek eskuartean zeukan eleberria begiratu zuen begiak eta burua mugituz.

– Koldo Izagirrerena –erantzun zuen mirespenez.

– Aski duzue zuk eta Koldo Izagirrek! Parte bana daukazue! Ezin diozue elkarri libururik utzi! Zer hizkuntzatan esan behar zaizue?

Kartzelariek haserre bizian alde egin zuten Beñaten ziegatik. Haserre itxi zuten kaiolako atea, eta sekulako kolpeaz kanpokoa.

Luisen ziega ernegu berdinarekin zabaldu zuten gero.

– Izagirre zara, ezta? Koldo Izagirre!

– Ez gaur arte behintzat. Ni Luis Izagirre naiz –argitu zion Luisek oinutsik, kamixeta tirantedunaren barnetik.

Kartzelariek atea itxi eta talkia hartu zuten.

– Isolamendu modulutik Zentrora. Isolamendutik Zentrora.

– Zentroa. Esan.

– Zein modulutan dago Koldo Izagirre? Lehenengoan edo bigarrenean egon behar du. Hirugarren eta laugarren modulukoak hemen goian baitaude. Txanda.

Kartzelariak haien bulegora joan ziren, ahots arrastoa bidean utzita. Euskaldunak leihora atera ziren gertaera komentatzera. Baina arratsaldeko seietan beroegi baldin bazegoen ziega barnean, areago leiho ondoan. Haizea muturrekoka, olatuan sartzen zen ziegara... orain bai, orain ez. Haizea hiltzera zetorren leihora, olatuak hondartzako hareara etzaten diren bezala.

– Gauean jarraituko dugu –erabaki zuen Beñatek, eta barrura sartu ziren lagunak; barrura, espetxearen hesteetara.

Kartzelariak erantzunaren zain zeuden bulegoan, garagardo hotz bana edaten. Lasaiago jadanik... Talkian ahots marrantatu bat hizketan hasi zen arte:

– Zentrotik Isolamendura. Zentrotik Isolamendura.

– Hemen Isolamendua. Esan.

– Koldo Izagirre ez dago ez bigarren ez lehen moduluan.

Isilunea. Tentsio egoerari dagokiona. Bost segundo eskasera...

– Errepikatu mesedez. Ez dizugu ulertu. Txanda.

– Koldo Izagirre ez dago ez bigarren ez lehen moduluan.

– Ea Zentroa. Nola liteke Koldo Izagirre ez egotea? Txanda.

– Nonbaitetik ihes egin duela uste dugu. Baina ez dakigu nondik. Diskrezioa eskatzen dizuegu! Falta da!, horixe da dakigun bakarra. Informazio gehiago bildu arte diskrezioz itxaron!

Isiltasunak biraoak garraiatu zituen. Itzelak. Ziegetatik entzuten ahal zituzten. Isolamenduan kantuan ari zen norbait.

Eta segidan gertatu ziren gainerako kontu guztiak.

Kartzelarien bulego nagusian bildu ziren zerbitzuburuak ilunabar hartan. Denborarik galdu gabe deitu zioten zuzendariari, eta segurtasunerako zuzendariordea ere berehala agertu zen, ziztu batean.

Zuzendariak eman zituen lehen aginduak, oso urduri.

– Lehenik eta behin, Guardia Zibilari deitu... Ihesa jakinarazi! Jo... jo eta lehertuko dut Koldo Izagirre ma... madarikatu hori! Gero Madrilera hots egin, Zu... Zuzendaritza Nagusira. Txi... txikituko dut harrapatzen badut... putakume hori! Ondo izo... izorratu nau alu horrek!

– Zerbait gehiago, zuzendari jauna?

– Zerbait gehiago!? Nondik ihes egin duen ikertu, joder!

– Lasaitu zaitez, jauna –zuzendariordea ez zegoen hain urduri, itxuraz.

– Lasaitu!? Bai, lasaitu... lasaitu...

Guardia Zibilari deitu zioten. Ofizial batekin hitz egin zuten.

– Izena: Koldo. Abizena: Izagirre. Arratsaldean falta zela ohartu dira moduluko funtzionarioak. Bai, arratsaldeko seietan, gutxi gorabehera... Ez!, atetik ez!, atetik ez... kontxo! Ez dakigu nondik ihes egin duen... Bai, horma gainetik ziur aski. Begira, nik urjentziazko deia egiten dizut... Ezin dizut datu gehiago eman... Ez dauzkat hemen, baina zuek... zuek Koldo Izagirre ordena-

dorean edukiko duzue... zuek edo Ertzaintzak... Bai, horixe, zuk esan duzu, Intxaurrondon jakingo dute nor den madarikatu hori!... Galindo ez dagoenetik gauzek okerrera egin dutela? Bai... bai... Entzun iezadazu, arren. Galindoren ohoreaz ez didazu niri ezer argitu beharrik. Ni zuekin nago. Bai, noski, ulertzekoa da zuen atsekabea... bai... Tira, beste dei bat egiteko premian... bai... nola ez! Bai, hurrengora arte orduan. Agur, bai, agur.

Intxaurrondora deitu zuten guardia zibilek.

– Koldo Izagirre... Ez, Izarregi ez. Ezetz, Izarregi ezetz. i-za-gi-rre! Zeuk errepikatu, arren... gi-rre... Bai, ondo hartua dago. Bai, Puertotik ihes egin omen du arratsaldeko seiak inguruan... Bai, nahiko ergelak dira kartzelari hauek... Bai, dena isilean eramana da... Noski!, ahalik eta publizitate gutxien... hobeto, bai.

Gaueko hamaiketan, Intxaurrondon mahai gainean zeukaten Koldo Izagirreren fitxa: Koldo Izagirre. Euskalduna. Abertzalea. Pasaia. Eta ondoan, letra larriz idatzitako txartel bat: bilatzeko eta atxilotzeko agindua - ihes egindako

e.t.a.kide arriskutsua. Operatiboa martxan zegoen, ehiza hasia.

Egun pare bat igaro ziren. Zuzendariak agindu bereziak eman zituen: presoen aurrean normaltasuna azaldu, ihesa egon zenik jakin ez zezaten; isolamenduko presoak espreski eta gertutik kontrolatu (zer egiten zuten, noiz hitz egin, noiz isildu, ahotsen doinuak, alaitasunik sumatzen zen ala ez). Dena jaso nahi zuen Zuzendariak. Halaxe eskatu zioten Madrildik.

Isolamenduan, aurreko egunetan bezalatsu zeuden. Baina kartzelari batek ohar bat idatzi zuen gertakari-liburuan: «Apetitu hobez jaten dutela dirudi». Eta beste batek: «*Egin*ak eta gutunak banatzen ditugunean, izugarri gozatzen dute».

Berotsu iritsi da abuztuaren hamabosta. Josebak agendan idatzitakoa irakurri du: «Uztailaren hamabostetik atzo arte, laurogei litro ur edanak». Gosaria hartzeko prest daude denak. Goizeko zortzietan eman du berria irratiak: Koldo Izagirre atxilotu dute Pasaian.

Goizeko zortzi t’erdietan Barne Ministerioko burua, Belarri Nagusia, irratian dago.

– Atxiloketa bat egin duzue gaur goizean ministro jauna. ETAko kidea omen da, hiltzaile arriskutsu bat. Nola lantzen dituzue informazioak hainbesteko xehetasunez? –galdetu dio kazetariak.

– Bai, xehetasunez eginiko ikerketen ondorioa da atxiloketa hau. Begira, informazio mintegi dira kalea, errefuxiatuen mundua eta espetxeak. Gu hortik elikatzen gara. Horiek dira gure informazio iturri eta lanerako abiapuntua. Esan dezaket, eta diot, Koldo Izagirre hiltzailearen atxiloketa, espetxetik irtendako informazio bati esker gauzatu dela...

Belarris-en berritsukeria amaiezina da. Euskaldunak leihoan daude segituan.

– Koldo Izagirrerena entzun duzue? Atxilotu egin ditek!

Beñat nahigabeturik dago, eta zerbait gehiago xuxurlatu du: ostia!

– Barne Ministerioak esandakoa entzun duk, ezta Beñat?

– Entzun diat Joseba, entzun diat...

– Gaizki-ulertua argitu beharko zioagu –esan du Kepak.

– Telegrama bat bidaltzea egokiena. Carabanchelera zuzenean –Luisen aburua.

Abuztuaren hamabostean telegrama bat irten da Puerto-1eko isolamendutik:

«Barkaiguzu Koldo Izagirre Stop Besarkada bat».

Baratzeko lanak

Beste atsedenaldi bat hartu zuen Patxik. Aitzurraren makilan bermatu zituen beso gurutzatuak. Aldapan zegoen lur sailari belarrak kentzen ari zen, eta atsedenaldi haietan iparraldera joaten zitzaion begirada: Guadalupera, Jaizkibelgo mendi muturrera, Hondarribira. Apirileko egunak ez dira batere seguruak. Apirilak bi aro dituela dio esaerak. Eta egiazki hala zen, udaberriarena zen goiz hura, baina...? Sunsunaren txistuak erreka ondoko zuhaitzetara eraman zuen, zokora, eta hantxe zen, urkiaren adarrean belusezko luma gorri-gorri harekin. «Sun...» egiten zuen sunsunak, «sun-sun, sun, sun-sun, sun...», eta hegan egin zuen oroimenak Auskene baserrira. Karrikako baserria da Auskene. Han gizondu zen gerra urteetan, mutiko zela: txotxak bildu eta ehunduz egiten zuela habia sunsunak, hura ere Auskenen ikasi zuen Patxik. Aitzurra altxa eta kaz-kaz, kaz, lurra zimikatuz jarraitu zuen. Eguzkiak albotik ematen zion. Behetik gora begiratuz, kontrargira bezala ikusten ziren erleen joan-eto-

rriak; ikuskizun bitxia! Erleek artaldeak bezala egiten dute, baina ez dute ardien modura banan-banan elkar ezagutzen. Aitzurraz harria jo, harria baztertu, eskuaz hartu eta alde batera bota zuen. Mertxikan erreparatu zuen, haren kimu sortetan. Txabolaren atzean, gereziondoak ere lehen loreak erakusten zituen. Kontraste ederra egiten zuen txabolako teila gorrien gainera eroritako adar loratuak. «Gure Ander hemen balego hau ikusteko!». Patxik kartzelan zuen semea aspaldian. Pinpilinpauxa bi jolasean zetozen, inora begiratu gabe, mugimendu delikatuez. Eta belarrak kentzen jarraitu zuen, kaz-kaz, kaz... Bi mutur haiek ukitu zituen berriro ere Patxik, Auskene eta seme kartzelatua, eta mutur haiek, nola-hala, lotzen hasiak zirela sentitu zuen, kaz-kaz, kaz... belarrak. Auskene gozo eta garratz.

– Ez ezazuela hil nire senarra... –emazteak soldaduei atarian, ama zena.

Eta atzetik bila joanda ere ez zuen aurkitu.

– Senarra etxera bidali dinagu, emakumea! –erantzun zioten Oiartzungo Udaletxean.

Kaz-kaz, kaz... belarrak. Atsedena berriz ere. Arnasa sudurretik sakon hartu eta txabola alde-

ra begiratu zuen. Xan zetorren, zakurkumea, txabolatik behera, zeharka korrika. Eta atzetik adin bereko katakumea, zakurra harrapatu ezinik. Sagarrondoaren orpoan etzanik jarraitu zuten jolasa, batek koxka, besteak harramazka. Belarrak kentzen jarraitu zuen Patxik. Zozo batek so zegion lahar artetik. «Zuek, semeak izandakoek, ezer egiten ez baduzue, bilobek egin beharko dugu, atta». Ño!, hura ere gogoratu zuen Patxik. Aita fusilatua, semea espetxean. Kopetatik behera zihoakion izerdi tanta.

Goizak bere berezko usainak ditu, eta horretaz ohartua zen Patxi. Kaz-kaz, kaz... Bat-batean gelditu zen. «Hiltzea ez baitut sekula matte izan...». Esaldia pentsamenduaren espazioan dilindan geratu zitzaion. Jendea akabatzen ibiltzea nork matte dik ba? «Ez gure seme-alabek...». Patxik galdetu eta Patxik erantzun. Barruko sentimendua zen hura, fedeak sortutako printzipioa, gizalegearen oinarri, argudio nagusi eta erabakigarria, baina... zenbat trufa hari gizateriak! Sudurretik lurrera egin zuen izerdi tantak, eta Auskenera egin zuen berriro ere Patxik... kaz-kaz, kaz, belarrak...

Behorra hartu eta karrikatik, Oiartzungo lurretatik, Arantzara abiatzen zen, Nafarroako herrixkara, irin bila. Arantzako errotan behorra kargatu eta baserrira buelta, bide beretik. Zigortuta zegoen kontrabandoa, horregatik joaten zen gauez, isilean. Hamar urteko mutikoarentzat, beldurraren mugetan hedatzen zen gaua; isilean ibiltzea beraz ondorioa... Birigarroaren kantua entzun zuen oso gertu. Nonbaitetik bueltan baletor bezala begiratzen zuen. Txakolina eusteko zegoen zementuzko zutoinaren gainean ari zen kantuan, lumak harro-harro eginda. Paparra izerdiz bustita, Patxik eguzki aldera so egin zuen: «Hamarrak pasatxo!».

– Alde hortik!, txakur txatxu hori –esan zuen.

Amonaren loreak apurtzen ari ziren Xan eta katua euren jolasekin. Belarrak kentzera berriro ere, kaz-kaz, kaz... «Atta, askatasuna ukatzea baino krimen handiagorik ez dago». Beste ausentzia bat. Eta ez al zen egia? Garai batean, bai, halaxe uste zuen berak ere, aberriaren alde denok bat eginik lor zitekeela independentzia, armarik gabe, alajainkoa! Kaz-kaz, kaz... Nahi bai. «Gezurra eta zikina besterik ez! Zenbat

seme-alaba hil zizkigutek?». Era hartan pentsatzeak min egiten zion. Belartzarra zurtoinetik heldu eta lurraren kontra jo zuen gerria makurtuta. Matxinsaltoak jauzi egin zuen, lehenik gora eta gero behera. Bazterrera bota zuen belar handi hura. Usapalaren urruma ere han zen, txabola gaineko haritzetik zetorrena. Arraroa inguru hauetan ibiltzea. Isildu gabe deika ari zen usapala, beheko zokotik, akazia zaharraren barnetik. Beste usapal bati entzun ziezaiokeen, ahul, deika hura ere. Patxik aitzurra altxatu zuenean, atzetik zozo ar moko horia sartu zen lahar artean. Kaz-kaz, kaz... belarrak.

Gertaera oroitu baino lehenago barre egin zioten begiek Patxiri. Auskene eta behorra, behorra eta Auskene. Behorraren gainean ibiltzen ondo ikasia zen, eta zelarik gabe gainera. «Berak niri bota al zidan desafioa, edo nik berari?». Txirrinduak behorrari baietz irabazi. «Bentaja puska bat ere eman niola uste dut...». Kanala pasa behar eta behorrak gaizki kalkulatu zuen jauzia, ez zen bestaldera behar bezala iritsi. «Behorraren gainetik ez nintzen joan ba!». Kaz-kaz, kaz. Behorraren buru gainetik joan zenean, Patxi ez

zen batere ondo erori. «Lepauztaia jota, hantxe hautsi nian! Anderri erakutsi nioan ba non gertatu zen». Berriz ere semea, kaz-kaz, kaz. Eta hura oroitzearekin batera, kezka: «Nola irauten ditek hainbeste denbora kartzelan?». Hamar, hamabost, hemeretzi urte. «Ez zaiguk Euskal Herria hainbeste inporta... Hauen laurdena emango bagenu?».

Besoa kopetara eraman, poliki, izerdia kendu, mantso, eskua galtzetan igurtzi, lasai, gerrira eraman, trankil... «Hirurogeita hamar betetzera goaz, Jauna. Ez gaude sasoi onenean. Gerra hau bukatuko balitz? Semea etxean ikusi nahi genuke, gure artean. Asko eskatzea al da hori?». Aurrekoak baino ausentzia luzeagoa. Patxiren errezoen berri bazekien baratzeak. Aitzurra altxatu eta ekin zion kaz-kaz, kaz, belarrak... Semearen esanak errepikatu zituen: «Atta, ez dugu kalera ateratzeko borrokatzen. Presoak kalera irtenda ere, zer?». Kaz-kaz, kaz... bihotzaren taupadak behar baino azkarrago zihoazela sumatu zuen Patxik. Gelditu egin zen. Txepetxa txabolako leihotik sartzen ikusi zuen. Aurreko udaberrian bezalaxe, txabola barnean egina

zuen habia; «Anderri kontatuko zioat hurrengoan, poztuko duk!». Aitzurra neurrira altxatu eta belarrak kentzen jarraitu zuen. «Baina lekutara eraman ditiztek!». Amonarekin batera ibilia zen Patxi hona eta hara. Madrildik Ciudad Realera, Extremadurara gero, Cadizera ondoren... «Hegazkinean ere ibiliak gaituk ba!, Tenerife, Las Palmas... Ahal dugun bitartean behintzat behar den lekura joango gaituk amona eta biok». Lur sailaren goialdean, lurra ageri zen lekuan, argioilar bat pausatu zen. Lur eta belar artean zeuden zomorro batzuk mokoarekin heldu eta zomorroak agerian zituela alde egin zuen herabeti.

Bizpahiru atsedenaldi egin zituen Patxik. Horietako batean ikusi zuen zapelatza, zeruaren lautadan galdutako hegaztia zirudien. Eta gertaera gogoratu zuen: mendian egurra egiten ari zirela, zapelatza zetorren txantxangorriaren atzetik; eta txantxangorria ezinean jada, azken aukeran, Auskeneko osaba eta Patxiren artean pausatu eta babes hartu zuen; zapelatzak etsipenez utzi zuen harrapakina. «Kantuz, isildu gabe eskertu zigun txantxangorriak, lotsagabe hark!». Kaz-kaz, kaz, belarrak... Auskeneko

osaba eta izeba zendu zireneko egunak oroitu zituen Patxik. Auskene baserria saldu zutenean, nora joan ote ziren otsoko eta axeria, oilar pixkorra, jinjunaren abestia, naturaren irakaspenak, ilargiaren tranpak... nora etxeko erleak. Auskene betirako itzali al zen? «Bai, itzali egin huen...», kaz-kaz, kaz, belarrak...

Beste behin etorri zen argi-oilarra eta mokoan eraman zuen harrapatutako zomorro pardela. Guztiz zutitu zen Patxi eta argi-oilarra joan zen aurkako lekura begiratu zuen: Guadalupera, Jaizkibelgo muturrera, Hondarribira.

– Itzultzeko asmorik ez galdu, Ander –esan zuen paisajeari beha, begiak lauso–. Karrikan kimu berria diagu –erantsi zuen begitartea alaituz.

Bilobaz ari zen.

Zozo bikotea zalapartatsu irten zen lahar artetik. Eguzki aldera begiratu zuen Patxik. «Hamabi t'erdiak laster».

– Xan! Etorri, Xan! Sartu txabolan, amona zain egongo da-eta. Tira, goazen, Xan...

Goiz hartako lanak amaitu zituen. Zomorroak eta zizareren bat edo beste jatera jaitsi zen biri-

garroa. Apirileko egun haiek ez ziren batere seguruak. Apirilak bi aro dituela dio esaerak. Eta egiazki, hala zen.

Zerua urez hustu zen bitartean

Autobusak Altzibar auzunean zuen azken geltokia. Astean zehar erabaki izan zuten bezala, aitak eta alabak mendira joateko planak eginak zituzten. Eguerdirako etxean. Horrela izaten ziren mendi irteerak, gastu handirik gabeak.

Aneri deigarria iruditu zitzaion Arraskularre izena. Horregatik onartu zuen aitaren proposamena, eta gainera, ohiko ibilbideetatik kanpo zegoen Arraskularre mendixka. Kontuan hartzekoa erabat.

Igande goizean, igandea lo dagoen orduetan joan ziren autobus geltokira.

– Hartu al dituzu ogitartekoak?

Ogitartekoak?! Ez daude ahazteko moduan, pentsatu zuen Anek. Aduriz okindegian erosiak zituen ogiak goiza ordurik gabe zebilenean.

– Urdaiazpiko tortilla daukagu. Laranja bana bakoitzak.

Altzibar, Oiartzungo auzunea, hiru kilometrora dago. Ez urrun, beraz. Autobuseko txoferrak aitari bueltak itzultzen ari zitzaion une horretantxe, Anek egunsentiaren presentzia sumatu zuen. Baina ez zen inon ageri. Hodeiek zerua estaltzen zuten, eta egunsentia.

Egunsentia, galdetu zuen Anek, bizidunen antzera esnatzen al da?

Ia hutsik zihoan autobusa: txoferra, aita eta alaba. Hirurak kristaletik kanpora begira.

– Eguraldi txarra izango dugu gaur –aitaren hitzak ez ziren teorian oinarritu, erortzen ari zen euri zaparradan baizik.

– Bustiko gara! –ausartagoa izan zen Ane.

Oinez abiatu ziren Altzibartik, errepidetik, autobusa utzita. Euria bota ahalean, baina ez zuen hotzik egiten. Bostehun metro ibili ondoren, aitak bakarrizketari ekin zion: «Aspaldi da Arraskularre igo ez dudala», eta antzeko baieztapenetan indartzen zen bere ahotsaren doinua. Mendigoizaleen berezko elkarrizketan murgildu ziren Antton eta Ane.

Errepidez kilometro t’erdi ibili ondoren, ezkerraldera harturik, harri, hondar eta putzuz betetako bidexka zanpatu zuten urrats hezez.

– Begira, mendixka hori da Arraskularre.

Geldiunea egin zuten. Zetozen lekutik begiratuta, erreka behe aldean ikusten zen. Erreka eta gero, mendixka. Kolpetik hasten zen aldapa.

– Haurrak ginela, ibar horretan jolasean genbiltzala, obusak pasatzen ziren gure buru gainetik. Zazpi bat urte izango nituen orduan, gerla garai haietan.

Noiz izan zituen aitak zazpi urte?, esan zuen Anek bere artean. Entzuten jarraitu zuen.

– San Markos menditik botatzen zituzten obusak, eta gudariek Arraskularretik erantzun!

Burdinazko bola bat zerua zeharkatzen irudikatu zuen Anek. Obusen ziztuak eta danbatekoak oroitzen abiatu zen Antton aldapan gora.

Zerutik errekara jaitsi ziren Aneren begiak: uretatik uretara. Gainezka zetorren erreka ttikia, presaka, apar xuriz. Gutxik dakite, erreka apar xuriz doanean, tripaz gora doala, mendi gailurrei eta zeruari begira.

Lehorrak izango ote dira errekaren begiak?

Oteak loretan zeudela ohartu zen. Ur-jauziak ere menditik behera erortzen ziren igande bustian. «Hemengoa naiz» entzun zuen bere barnean Anek, urez jantzirik. Ilea aurpegian itsatsirik. Eta loreak horixkak zirela konturatu zen, su txikiak bezala.

Gailurrean gurutze handi bat dago, pinuz inguraturik. Nabarmena da, harrizko gurutze handia pinuen laguntaldekoa dela. Urteetan elkarrekin egon ondorengo laguntasuna baino, egontasuna dute. Zenbat euri, haize eta elur batera jasanak.

– Gudari asko hil ziren hemen.

Pentsamenduak ere isildu egin zitzaizkien biei. Aita gurutzetik urrutiratu zen. Anek berdin egin zuen. Bidezidor batetik gurdibide aldapatsu batera salto eginda, Arrasku baserria agertu zen distantzia gutxira. Urak bere bidea egina zuen gurdibidean.

Baserri aldera gizakirik pasa ote da inoiz?

Harriak biribilduak ditu gurdibideak; zartaturik, ximeldua du lur-azala. Bai, erruz ari zuen euria. Baina euriaren hotsa ez da berdina izaten leku guztietan.

Arrasku atarian aurkitu zuten baserritarra. Lainoei ere inguruan gelditzeko asmoa igarri zitzaien, lur eta zeru arteko tarte osoa bere egiten zutela.

Aitak baserritarrarekin hitz egiten ari zela ikusi zuen Anek, baina alderantziz zen berez. Tortilla soila egin zezaten agindu zuen. Eskainitako sagardoa edan bitartean, baserritarrak Arraskuren kinka gordina azaldu zuen batzarrean.

Haur haiek noiz eta nondik irten ziren ohartu gabe, Aneri ilunkara iruditu zitzaion baserritarraren ataurrea.

– Lehengo urtean, bai. Ekaitza zetorrela sumatu eta, emaztea balkoian eskegitako arropak biltzen ari zela, tximista batek hil zuen gaixoa.

Anek ulertzen ez zuen erara erabili zuen nostalgia, eta maitasunak bazituen harengan bestelako ñabardurak.

Isilik zeuden haurrak. Zazpi bat urteko mutikoak ilargiaren itzalak margoturik zeuzkan aurpegi eta belaunetan. Neskatxak, zahartxoagoa, bi urteko umetxoa ondoan zuela, bihotzarekin begiratzen zuen.

Inoiz jakingo ote dute begiek zer ikusten duten?

Baserritarrak berean jarraitu zuen, atsedenik hartu gabe. Bere hitzaren pausora joan zen iraganetik etorkizunera.

– Seme-alabak ttikiak direla joan zen andrea.

Haurrak isilik, berean ere, ibilbide berdinean. Baina atertu zuen. Denean. Ez zen euriaren hotsik entzuten, ez zen baserritarraren saminik beratu gabe geratu. Eta agur batek ahoa diseinatu zuen gizonaren irribarrean.

Gurdibideko aldaparantz jiratu baino lehen, Antton eta Aneren aurrean gelditu zen neskatxa. Urteetan gordetako galdera bailitzan, Aneri begira ahoskatu zuen:

– Noiz itzuliko zara?

Berehala ohartu zen Ane, ez zela berari zuzendutako itauna, baina beretzat hartu zuen. Aitaren eta alabaren artean ama bat sortu zuten, zerua urez hustu zen bitartean.

Ilargiak begiratzen duenean

Teilen gainetik ilargia ilgoran ikusten da uztaileko ilunabarrean. Espetxe zaharkituko teila hitsen gainetik datorkie bizitza presoei. Adibide bat da ilargia. Ziegak lurraren pare daudelakoedo, goitik datorkio dena espetxeari: edozein gertaera, ikuskizun, bizi mota, haize berri... Lurra usain liteke, lurrik ikusten ez den arren. Garia usain liteke egunsentian, belarra ere bai udako ekaitzaren ondoren, lurrin galduaren gisan; baina ikusi, ikusi ez.

Espetxe zaharkituko azken moduluan emakume bi daude ziega bitan.

– Joana!

Egun argiz ere grisa da patioa. Zoruaren grisa, adreilu gorrien grisa, alde goroldioztatuaren berdearen grisa, itzalen urdin grisa.

– Gure esku dago zulo edo habia bihurtzea leku hau –esan izan zion behin Joanak orain leihotik kanpora begira ari den Ainhoari.

Ilargiaren zisku larua antzeman du teilatuaren gainetik, eta «Joana!» oihukatu du ostera

Ainhoak, indartsu, soinua lau pareten artean gera ez dadin. Oin puntetan, lepoa ahal duen guztia luzatu du, ilargiaren muturra ikusi ahal izateko bederen, baina harengana ez da oraindik ageri. «Ilargi», esan du Ainhoak bere baitarako, «hurbil zaitez gehiago!». Eskuetan edukitzeko tentazioa berpiztu zaio, ilargia ukituz ilargi bilaka litekeela pentsaturik, inozo...

– Joana!

Zertan ari da ba Joana? Astindu batek jota larritu da Ainhoa:

– Joanaaa!

– Bai, entzuten dizut...

«Entzuten dizut, entzuten dizut...» errepikatu du Ainhoak erneguz.

– Manuk idatzi dit Saltoko espetxetik. Koltxoiak kentzen omen dizkiete egunean zehar.

– Zer dela-eta? –Ainhoak belarri atzera eraman du ile xerloa.

– Kontaketa uneak zutik pasatzen ez dituztelako.

– Bakarrik jarraitzen al du moduluan?

– Beno! Hauek okerrera doaz!

Sartu-atera dabil Joana, ziegatik leihora. Elkarrizketaren marmarra uhara uzten ari da ilunabarrean. Hormetan ezarritako argiak isiotu egin dira bat-batean. Lau bonbilletatik bik besterik argitzen ez dutela, patioak kale itsu bat dirudi. Ilargia, ilgoran, horma igo eta gailurra egin balu bezala azaldu da Ainhoaren aurrean. Eta nola begiratzen duen ilargiak ere!

Joanak Manuren gutuna irakurri eta berrirakurriko duela jakinik, denbora pasa dago Ainhoa leihoan, arratsaldetik gauerako aldaketa zaintzen. Zakur baten zaunka entzun du, eta zaunka errukarria dela iruditu zaio. Pip-pip egin dio ordulariak. Orenetako alarmarekin batera ireki dute galeriako atea. Kartzelariak arrastaka eraman ditu hankak galerian barrena. Joanaren ziegaren parean gelditu da lehenik, Ainhoarenean ondoren, zazpi urrats emanda; eta etorritako bidetik joan da kontaketa egin eta gero, hamarrak eta hiru minutu direnean.

Hamarrak eta laurdenetan irten da Joana leihora eta, egunerokoari jarraituz, hamaikak arte berbetan aritu dira biak, Ainhoari gustatzen zaion moduan. Solasaldiaren erdian zakur zaun-

ka errukarriak tartekatu dira, eta zigarroaren ke lainoa, ilargi hori ilgoran, hontzaren joan-etorriak bere lurraldearen gainetik uluka udako gau sargorian... Hamaiketan, esan bezala, Ainhoa eta Joana ziega barrura erretiratu dira.

Irratia piztu du Ainhoak. Burdinazko mahaian folio zuri batzuk ipini ditu, apalaren gainean flexoa. Urez bete du edalontzi bat... Baina akiturik dago, bai. Beroaren eraginez, apika; ilargi hori ilgoran. Ohean etzan da, luze. Gitarraren doinu tristea ari da irratian, eta doinuari helduta higitu da, joan da, badoa bere barne musikarekin batera. Baretasunaren zirrikituetatik atera balitz bezala azaldu zaio Josu. Berriro ere. Beste behin. Hegan datoz oroimenak, hegan doazen horiek. Eskua errekan sartu du, ura hartzera egiten den eran. Zenbat maitasun atxiki ditzake esku batek? Galderen kontua galdu du Ainhoak, eta iturburura bueltatu nahi izan duenean, ziegako atea zabaldu diote.

Ziega barnean dira kartzelarien burua, zuzendaria eta hiruzpalau kartzelari gehiago.

– Ez dugu inolako problemarik nahi –adierazi dio zuzendariak keinuak exajeratuz–. Emaiozue albistearen berri.

«Albistearen berri?». Arraro egin zaio Ainhoari. Zerbait antzezten dihardu jende horrek.

– Nieves andereñoa... –kartzelari buruak urrats bat eman du Ainhoagana, eztul txoro bat egin eta jarraitu–: Joana, zure kidea, hilda aurkitu dugu hiruretako kontaketan. Hori da dena.

– Zer?

– Guk ez dugu inolako problemarik nahi! –errepikatu du zuzendariak–. Hilda zegoenez, berehala niri abisua eman, medikuari deitu eta, era berean, guardiako epailea jakinaren gainean jarri dugu. Hori da dena.

Sabeletik gora bular aldera eta sabeletik behera hanketara, zerbait mugitzen hasi zaio, itzal baten gisa, itzal pisu baten gisa. Eztarrira iritsi zaionean, espero ez zuena esan die:

– Joana hil dela egia bada... ikusi egin nahi dut!

Inork ez du ezer erantzuten jakin. Eskua ahora eraman du zuzendariak eta ezpain ertzetatik pasa ditu atzamar bi.

– Konpromezu handia da hori niretzat, baina ulertzekoa da –onetsi du, eta ondoko ziegara joateko agindua eman du esku mugimendu soil batez.

Kartzelari multzoaren aurretik doa Ainhoa. Sei metro besterik ez daude Joanaren ziegara. Atea erdi zabalik dagoela ohartu da. Ziegaren parean gelditu denean, gelditu egin da kartzelari multzoa ere. Oratzearekin batera mugitu du burdinazko atetzarra Ainhoak, beldurturik, ahoa idor, besoak dardarati. Ez du atea zeharo ireki. Barrualdera makurtutakoan, Joana ikusi du ohe gainean etzanda. Flexoaren argiak bestaldera egiten duelako, ohe inguruan ahulduta dago argia. Ainhoak galeriaren ezkerraldera begiratu du, zuzendari eta kartzelari multzoari.

– Hamar minutu egin nahi ditut berarekin. Bakarrik!

Zuzendariak ordulariari so egin dio senezko erreakzioz. Buruz baiezkoa eman dionean sartu da Ainhoa ziegara, besteak galerian utzita.

Atea itxi du. Eskuinean, paretan itsatsirik, ikurrin handi bat dago, horma hiru kolorez margotzen. Bi urratsez ohe ertzera hurbildu eta Joa-

naren eskuari heldu dio. Hotz dago. Atxapar usaina hautemanez, atxapar ala jasmin?, Ainhoak begiak itxi ditu istant batez. «Zer esan behar dizut orain, Joana?», pentsatu du, gertatzen ari denarekin zorabiaturik.

– Joana, ez gara inoiz horrela egon –esan dio eskua estutuz–. Ez nuen hau espero... Esaten zenidan borrokak bazituela alde ilun hauek, baina ez zirela hain ilunak... borrokalariak heriotza besarkatzen jakin behar zuela, halaxe ematen ziola hain juxtu zentzua bizitzari, iraultzari –sudurretik behera amildu zaio malkoa–. Ez nago hain seguru, Joana, benetan.

Burua altxatu du, kokotsetik eskura erori zaizkio malkoak, urdin diruditenak. Eta normala iruditu zaio, normala begi urdinetatik malko urdinak isurtzea. Liburuz betetako apalari behatu dio. Apalaren ertzean dago atxapar edo jasmin barratxo itzalia. Ondoan Manuren argazkia, liburuen aurrean, irribarretsu.

– Ikusten al duzu? Ezin dira planak aurreratu. Zuk baietz esaten zenidan, planifika zitekeela etorkizuna... Zeuk esan beharko diozu Manuri zer gertatu zaizun!... Zer esan behar diot ba nik?

Gau-mahaia izan nahi duen apalean artilez eta trapuz egindako sorgina ikusi du, urtebetetze egunean berak oparitutakoa.

– Manuk haurtxoa nahi zuela gogoratzen al duzu? Zenbat eztabaida haren inguruan... «Bizitzaz arduratzea borrokaz arduratzea bezala da» esaten zenidan. Ez nuen esanahi bikoitza ulertu hasieran... Eta orain izorratzen nauena da halaxe joan izana, Joana, abisurik eman gabe.

Kask-kask jo dute atean. Ainhoak ez du erantzun. Joanaren eskuari helduta jarraitzen du, lagunari begira. Lepoan dauzka betiko zintzilikailuak: Euskal Herri txikia ezpalean landua, zilarrezko ezkurra, ilargitxo bat ilgoran.

– Elkarrekin egin ditugu azken bost urteak, hemendik irten gabe, Joana. Zutaz beterik dago pitxer hau.

Berriro amildu dira malko urdinak. Zorura begiratu du, eta paretaren ondoko baldosatik gora ilaran doa txindurri andana.

– Ezti potoa zabalik utzi duzu berriro, Joana.

Kask-kask atean, kolpe metalikoak.

– Egonaldia amaitu da! –entzun du Ainhoak ziega barruan.

«Ez naiz ba hemendik mugituko. Urte hasierako plantean egin genuen bezala egingo dut, Joana. Eraman gaitzatela beraiek nahi duten lekura! Gu ez gara hemendik mugituko!».

– Ez gara hemendik mugituko! –oihukatu du Ainhoak..

Joanaren gorpua besarkatu du. Lepo gabeko mantar zuriari ekonomatoan saltzen duten leungarriaren usaina dario. Lepoan eman dizkio lehen musuak, eta horrelaxe dagoela bere gorputzetik tiraka ari zaizkiola sentitu du.

– Joanaaa! –oihu egin du ahal izan duen indar guztiarekin.

Ziegatik galeria ilunera atera dute Ainhoa indarrean.

– Joanaaa!

Etsipenez, amorruz garrasika eraman dute ziegara. Barrura bota dutela sentitu du... eta erortze hartan, daunb!, izugarrizko zarata entzun da.

Lurrean esnatu da Ainhoa, kolpearekin batera ohetik erorita. Irratian musika entzuten du, aire triste bat isiltasuna kulunkatzen. Folioek mahai gainean jarraitzen dute. Eta orduan kon-

turatu da dena amesgaiztoa izan dela. Dardarak jota, baina pozik, jaiki egin da. Leihora abiatu, eta gora begiratzearekin batera agertu zaio ilargia, ilgoran, berari keinuka.

Aldameneko ziegatik entzun du:

– Ainhoa! Ainhoa! Erantzun ba! –Joanaren deiadar kezkatua gaueko ordu txikietan.

Hemen gaude

Telefonoa entzun zen:

– Bai? Esan?

– Amaia hor al dago?

– Ez. Ez da lanetik oraindik etorri. Nor zara?

– Xabier. Puertotik deitzen diat.

– Hara! Zer duk, Xabier?

– Amaiari esango al diok bisa onartu digutela larunbat honetarako?

– Bisa?

– Bai, vis a vis, elkarrekin egoteko aukera hori...

– A, ondo zagok. Esango zioat. Hi, Xabier! Ez duk batere ondo entzuten...

– Zer?

– Ez dela batere ondo entzuten!

Eten egin zen telefonoa.

Lanetik etxera iritsi bezain laster irakurri zuen Amaiak anaiaren oharra, sukaldeko mahai gainean: «Amaia: Xabierrek deitu din Puertotik. Bihar omen duzue vis a visa. Bihar, larunbata. Amari esan ez naizela afaltzera etorriko. Batza-

rra dinagu Ugaldetxon. Eta ondoren afaria. Ondo izan. Mikel».

Udaberriak ustekabean hartu du Oiartzun apirilaren amaieran, bailara osoa itsasora arte. Aiako Harrietatik begiratzen du eguzkiak goizean. Baina Oiartzungo herrian pausatzen dira eguzkiaren begiak, gertuago duelako zoko berde hura agian, lotsagabe berari so. Aiako Harrietako mendian behar baino denbora gehiago egiten du eguzkiak. Mendi horretan datza, biribil, eguerdira arte ia, edo horrela iruditzen zaie bertako biztanleei. Udaberria da. Astronomoek diotenez, eguzkia urtaroen ezjakin da. Zein lekutan bizi dira astronomoak Oiartzunen?

Ugaldetxotik Elizalderako bidean, muino batean dago Amaiaren gurasoen baserria. Ostiral goiz honetan, egunsentiaren aurretik, baserriak eta inguruak paisaje ezin ederragoa osatzen dute, edozein pintore erakartzeko modukoa. Baserri aurreko zelaitik begiratuta, goian dago baserria, kaxkoan. Baserri aurre zelai hau, maldan, maldan behera. Bazterrean, eskuin aldean, txu-

kundutako lahar batzuk hesi modura jarriak zelaiaren mugak zehazten-edo. Goitik behera, irristatuz bezala, udaberriaren lehen loreak datoz oker eta xuxen. Ilbeteak urdinez, morez margotu du zelaia... bioletaz era harrigarrian. Loreekin batera, itzal koloredunak. Gau-kolorez estalirik dago zelaia: zelaia bera lo, lo-kolorez.

Iluna da baserriaren itzala, ia beltza. Hondoan dauzkan mendiei esker nabarmentzen da haren itxura. Argi hori bat irteten da baserriaren leiho batetik, lanpararen batena. Baserriaren bihotza dirudi. Teilatu eta tximinia lerro zehatzak; teilatu eta tximiniari dagozkien lerro zehatzak dira. Tximiniari ke zuria dario, xuxen lehen sei metroetan-edo, pittin bat okertzeko gero eskuin aldera, gauaren arnas lasaiak barreiatu arte.

Hondorago ikus daitekeen paisajea, pinudi ttiki berdeak, iraleku marroixkak, otadi urdin ilunak osatutako mendi eremua da. Eta mendi eremu honen gainetik, mendi-hegia eta Aiako Harriak. Oskarbi. Ilargiak zurgiloak sortzen ditu, handitzen, zabaltzen doazenak inguru argitsu

bat sortu arte. Ilargia argiaren gune. Zeruaren ertzak goibel, profilik eta izarrik gabe.

Baserritik irten eta errepideko bidean Amaiak burua atzera biratu duenean, hori guztia ikusi du ibiltzeari utzi gabe, goizeko freskuran. Ezti jarioak sentitu ditu gorputz barnetik kanpora ihesi, zarradak, dardarak larruazalean, lurrinak bost zentzumenetan, udaberritik etorri edo udaberrira doan jakin gabe. Xabier etorri zaio, eta eskuak estutu ditu, bihotza estutuz bezala, Xabier heldu nahian. Anaiaren oharra irakurri duenean, udaberriak gainezka egin du, eta udaberria irristatu zaio masailera: malko gozo artean jaio da, heze, koloretsu. «Zer nolako sentimenduak sortzen dituzun nigan, motel!», pentsatu du Amaiak.

Autobusa seietan irtengo da Oreretatik. Amaiari gorputz osoa tenkatu zaio. «Besarkatuko dut, muxukatuko dut» pentsatu du, pentsamenduak abiadura balu bezala. Xabier espetxean dagoenetik lehen aldia izango da, ukitzeko lehen aukera. Bidaiarako prestatzen hasi da Amaia, bere buruari hitz egiteari utzi gabe.

Xabier patiora irten zen telefono deia egin ondoren. Puertoko patio karratuan beterik zegoen arropa zabaltzeko tokia. Haizeak arropak astintzen zituen: kamisetak, jeans higatuak, izarak, galtzerdi eta galtzontziloak (hauek burdin harietan korapilaturik). Txandal prakak ere bai, eskuoihal batzuk, ahaztuak, utziak, kolorge, jadanik jaberik ez zutenak. Gora begiratu zuen Xabierrek. Moduluaren horma altuek karratu egiten zuten zerua. Urdin ikusi zuen, argitsua, hondorik gabea... eta antxeta bat azaldu zen haizearen mugimenduan.

Preso talde bat bildurik zegoen ekonomatoaren leihoaren ondoan. Kalakan.

– Behi makalek ematen dute esne deskrematua –norbaitek esaten zuela entzun zuen pasaeran Xabierrek.

Baina berak, telefonoz izandako elkarrizketa errepikatzen zekarren ia hitzez hitz:

– Bisa onartu digute larunbat honetarako...

Eta errepikatu zuen:

– Amaiari esaiok bisa onartu digutela larunbaterako...

«Zergatik ez diot biharko esan? Ulertuko al zuen Mikelek?». Joan-etorri lasaian zebilen patioan. Haizeak norabide galdua zuen, leku guztietatik jotzen eta leku guztietatik ihes zebilen haizeak adatsa astintzen zion Xabierri. Antxeta orekariak adreilu gorriz egindako eraikina begiratu zuen, eta han behean jateko zaborrik ez aurkitzea harrigarria iruditu zitzaion. Haizetan joan zen kexati, Amaia eta Xabier elkartzeko hogeita lau ordu baino gutxiago falta zirenean.

Guardia Zibilak Intxaurrondora eraman zuen Xabier atxilotutako egunean. Hasieran, komando batean sartuta zegoela esaten zioten zakurrek.

Arrastaka eraman zuten gela zikin batera, burua estalirik zuela. Ohol luze batean etzanarazi zuten, eta ongi lotu ondoren, ohola ertz batetik heldu eta gora altxatuz, buruz behera ezarri zuten. Burua ur zikinetan murgiltzeko kalkulatua zegoen inklinazioa. Azken unean kendu egin zioten buruko estalkia.

«Bañera!», Xabierren oihua bere buruan bakarrik entzun zen.

Itotzen sentituz, larri, artean burua ur zikinetan sartu gabe zuela, estualdiak eraginda-edo, Xabierrek lagun zahar baten esanak oroitu zituen:

– Bañerari ez zaio aurka egin behar. Onena urak irenstea. Norberak irentsi ahal duen arte. Eusten bazaio, azkenean, sofrimena biderkatu egiten da.

Ur zikinak irensten hasi zen Xabier. Isurkiaren artean materia ere, zerbait gehiago zegoela sumatu zuen. Zorabiatzekoa zen kakaren eta pixaren kirats sarkorra, baina ezertan pentsatu gabe irensten zuen Xabierrek, itolarriz, dardaraka, hiltzen.

– Begirazak! –zioen zakur batek–. Honek dena irensten dik!

– Ia bañera hustu dik nazkante honek!

Zakurrek ohola orekatu zutenean, oka egin zuen konortea ia galdurik. Zakurrek oholaren ertzari heldu eta berriro ere pixontzian murgildu zuten Xabierren burua, goragale krisian.

Sei saio. Seietan jaitsi zen infernura.

Eta mugalaria zela leporatu nahi zioten gero. Eta delitu hori egotzi nahian trapu zahar baten

modura jarri zuten epailearen aurrean. Eta zakurren adierazpenei onargarri iritzi zien Entzutegi Nazionaleko epaileak. Eta Xabier espetxean sartu zuten baldintzagabeko presoaldian.

Espetxeratu eta orduetara gorriuneak atera zitzaizkion gorputz osoan. Larruazala horixka zuen eta begiak odoldurik artean, gaixo nekea. Ziegan sartu orduko bi orri, bi jakinarazpen eman zizkion eskura kartzelariak.

– Hamargarren artikulupean zaude. Komunikazioak, idatziak eta hitz egitekoak kontrolaturik edukiko dituzu.

Ziega aztertu zuen. Atxiloketa, bañera, galderak, mehatxuak, jipoiak, oinazeak, izuak, ezinak, aztertu gabe irauten zuten bere barnean. Aztertzeko beldurrak eraginda, agian.

– Gaur ez duzu patiorik ukituko –esan zioten–. Bi orduko patioa izango duzu bihartik aurrera: bat goizean eta bestea arratsaldean. Astean bi gutun idazteko aukera daukazu. Berrogei minutuko bisita...

Espetxeratu eta orduetara «Intxaurrondoko infernua bukatu duk» esan zuen Xabierrek. «Amaiari idatzi behar zioat» pentsatu eta tele-

grama bat idatzi zion, lehena, premiazko mezuekin.

Hiru hilabete egin zituen Alcala-Mecon. Puertora eraman zuten ondoren, Cadizera. Intxaurrondo barnean zuela.

Autobuseko atzealdeko eserlekua aukeratu du Amaiak. Orereta beti zaio ateratze edo helduera herri. Bidaiariari begiratzen dion herria da Orereta. Amaia badoa. Ohiko familiartekoekin mintzatu da, ezagunak gehienak, maiteak. Baina intimitatea behar du, eta atzealdeko eserlekuan eseri da, urrutiko zuhaitz bakarti baten azpian eseriko balitz bezala. Beirate zabaletik kanpora begiratu eta Xabier Puertora eraman zuten eguna oroitu du, ilunabarrak zeru ertzaren gailurrak gainditu dituen unean.

Komunikazioaren kabinak etorri zaizkio burura, izpia itzalean barneratzen den legez. Eta harritu egin du oroimen honek, Xabier ikustera sartu zen lehen aldi hartan, barne zirrara zela, ilusioa, kemena, grina, inguruari egoki behatzea

galarazi ziotelako. Tristea iruditzen zaio toki hura.

Xabier kabina mordo baten artean aurkitu zuen. Berrogei kabinaren artean bakarrik, bere irribarre zabalarekin. Gogoan du nola jo zuen zuzen-zuzen harengana, nola sakatu zion interfonoaren botoiari, eta nola xume galdetu zion:

– Zer moduz...

– Ondo –Xabierrek hiru segundo igaro ostean erantzun zion –, ondo...

Hunkigarria izan zen lehen bisita hura. Itzaltsua zen, grisa. Huts nabarmena zegoen komunikazio departamenduan. Irla bat zen Xabier.

Gomutatu zaio, hango bizi baldintzez jardun zutela, eta bisaren gaiaz.

– Hemen ere urtea daramate vis a visik egin gabe –esan zion Xabierrek.

Amaiari ez zitzaion deigarria egin.

– Arropa kopurua mugatuta daukagu. Hiru kamiseta, praka luze bi, alkandora bi, txamarra bat. Kamiseta bat bestearen truke lortzen dugu. Ez didate idazmakinarik uzten. Liburuak hiru.

Bisaren gaiari heldu zion berriro. Bizikidetasun paperak zirela-eta, ez zioten Alcalan vis a

visik onartzen. Zaintza-epailea nahita atzeratzen zela zirudien. Errekurtsoa irabazi zutenerako... Xabier Puerton zegoen.

Gutxi, baina galgatu du autobusak autobide zabalean, Amaiak oroitzapenak galgatu dituen aldi berean. Kanpoa ilun dago. Xabier hiru urte besarkatu gabe dagoela ohartu da hotz-hotzean. Hiru urte.

Burua kristalaren aurka eratzan du, begiak eta ezpainak irribarrez.

Afaldu ondoren, ziega barnean zegoen Xabier. Kirol-poltsatik atera zituen arropak. Alkandorak begiratu, kamisetak ondoren... hautaketan zihar-duen. Erabakitzea kostatzen ari zitzaion. Eta pra-kak? Bakero urdin argi higatuak zeuzkan alde batean, eta bestean tergalezko urdin ilunak, es-tuak. Kamiseta anila bereizi zuen... eta krema kolorekoa, aurrealdean Nafarroa Oinez 93-Altsa-su idatzirik zuena. Amaiak oparitutako nikia ikusi zuen, eta «hauxe bera» esanez baztertu zuen ohe gainean. Kontu berdinarekin aukeratu zituen prakak, galtzerdiak eta barruko arropa.

Ohe azpian utziak zituen, plastikozko poltsa batean, kafesnez betetako termoa eta madalena paketea, espetxeko ekonomatoan erosiak.

Ekonomatoak bi ziegak bat eginiko edukiera zuen. Ekonomatoa zeritzon, baina kontserba lataren bat edo beste, esnea, garbiketa tresneria, galletak, madalenak, txokolate kaxkarra, folioak, gutunazalak, zigiluak, ura eta litroko koka-kolak ziren salgai zeuden produktu bakarrak.

Hamaiketan ohean etzanda zegoen, musika entzuten.

Kartzelariak azken kontaketa egin zuenean, argia itzaltzeko agindu zion ondokoari. Xabierrek kartzelariaren urratsak jarraitu zituen, burdin langa antzeko ate bat ozentsu itxi arte.

Puertoko espetxean arazo asko zegoen. Katramilatsua da Puerto. Arazo horien artean bat, vis a visarena. Segurtasun neurriak direla-eta, ETAko kideak arriskutsutzat dituztelako edo komunikazio berezi hauek kontrolagaitzak iruditzen zaizkielako, ez zituzten vis a visak onartu nahi. Espetxe zaintzarako epaileak ordea, presoen kexuak, errekurtsoak eta salaketak jasotzen zituen hilabetero, eta arazoa bideratu behar

zuela pentsatu zuen, zuzendariaren gogoz kontra bazen ere.

– Ezin ditugu komunikazio horiek onartu –esaten zion zuzendariak.

Hasieran, epaileak ez zion ulertzen.

– Puerto, Puerto da –argudiatu zuen zuzendariak, espetxearen izena eta ospea babestu nahian–. Dena eman behar al zaie hiltzaile hauei? –argudiatu zuen, printzipio aitorpen gisa.

Epaileak berehala sumatu zuen, zuzendariak ezegonkortasun giroa bultzatu nahi zuela. Legea betearazi behar zuela bazekien, baina ezikusia egiten zuen, estatuaren politika eraginkorra izan zedin. Estatu politika al zen jarrera narras hura?

Kartzelaria atez ate urrundu zela entzun zuen Xabierrek. Begiak hertsirik zituela, epailearen autoa iritsi zitzaion unea gogoratu zuen. Bisa egiteko aldeko erabakia jakinarazten zion, presoaren aldeko erabaki hartu baitzituen epaileak urteak eta gero. Susmagarria.

Irribarre egin zuen Xabierrek begiak hertsirik zituela, «epe baterako lorpena behintzat» esanez. Baina pentsamendu honetatik urruntzen joan zen, ibiltaria landa-bideetan urrutiratzen

den bezala. Eta pentsamenduen bidegurutze batean, ibilbidearen norantza aldatu zuen, beste bide bat aukeratuz aurrera egiteko.

Amaiaren irudia etorri zitzaion, mendiko jertse grisaz jantzia. Xehetasun horrek Domiko urtegira eraman zuen, Agina mendatearen alde batean, muino artean ezkutaturik, berde eta urdin-argiz udan. Hantxe egin zuten kanpaldia, elkar ezagutu eta hurrengo udan. Zoragarriak iruditu zitzaizkion zazpi egun haiek. Zoragarriagoak orain. Urtegitik sortutako kanalak Oiartzungo norabidea hartzen zuen. Kanala utzi eta Aritxulegira Nafarroa aldetik igo zitekeen, eta hortik Aiako Harrietara pauso bat. Domiko urtegitik Artikutza urtegirako bideaz gogoratu zen Xabier, mendixkatik barrena. Pagolletatik Lesaka ikusiko zukeen ipar-ekialdean. Arantza herrixka ekialderago, Ekaitza mendi magalean uzkurtuta. Tartean Bera eta Sunbilla. Pagolletaren beste aldean Artikutza, hego-mendebaldean. Dena mendi eta baso.

Pagolletako bordan igaro zuten gau bat halako irteera batean. Egurra bildu eta sua egin zuten borda aurrean. Zuhaitz erori baten enbo-

rra bizkarralde modura baliatuz ezarri ziren biak lozakuak hartuta... Xabierrek buelta erdia eman zuen ohean eta saiheska jarri zen... Orduko elkarrizketa gogoratu zuen berriro, eta irudiak. Txingarra egina zegoen ia egur guztia. Sutearen argiak aurrez hartzen zituen biak. Gauaren lurraldea zen atzealdea. Amaiaren profila zekusan Xabierrek. Hizketan ari zen, eta hizketaren eraginez sudurra mugitzen zuen arin. Amaia sutara begira hasten zitzaion solasean, patxadan, sutara begira garatzen zuen gogoeta. Ideia nagusiren bat adierazi nahi zuenean, Xabierri begiratzen zion, eta berdin begiratzen zion gogoeta amaieran.

– Iraultzaz maiz hitz egiten dugu, Xabier –esan zion amaieran–, baina zergatik dirudi emakumeok beti ere gurdiaren atzetik gabiltzala? Gizonezkoa da Cheren figura, Lenin, Mao, Ho Chi Minh, Zumalakarregi edo Argala. Iraultzak gizonezkoarena dirudi, maskulinoa... –txinpartak nola igotzen ziren ikusten zuen, segidan Xabierri begira jartzeko berriro ere–. Emakumeari parte hartzea onartzen zaio –jarraitu zuen Amaiak–, baina herriak askatzeko, tiranoa garaitzeko bo-

rroka armatua zilegi bada, emakumeak askatzeko... borroka armatua, ez soilik zilegi, baizik eta beharrezkoa litzatekeela pentsatzen dut. Bere neurrian, noski, baina borroka armatu gisa ulertua beti ere. Sabotajeak armak erabiliz egiten dira, ezta?

– Hala da.

– Iraultzan, askatasunaren bidean, horretan ari bagara, gutxienez fronte hori kontuan eduki beharko genuke... –eta sutara itzultzen zituen begiak.

Xabierrek beste buelta erdia eman zion gorputzari. «Ez zen bat-bateko hausnarketa» pentsatu zuen orduan. Amaiak alternatiba bat eskaintzen zion. Gehiago zirudien hala ere ezintasunaren amorrua. Ez, ez zen aurreratzen. Emakumeei dagokien antolaketan, borrokan, garaipenetan, ez zen aurreratzen nahi bezala. Tratamenduaren arazoa zen? Kontzientziarena? Norabideena? Lehentasunarenak?

Flamenko taldea sartu zen bat-batean patioko zeruan. Xabier ez zen ikustera jaiki besteetan bezala, nahiz eta haien deiak entzun.

Flamenkoak arrosak dira gauaren ilunean ere.

Begiak hertsirik jarraitzen du Amaiak. Autobusaren argitzaletan kulunkatzen doaz oroimenak. Xabier ezagutu zuen eguna oroitzea laket zaio: jertsea gerrian eramateko modua, afariak, parrandak. Hondarribian gertatu zen... Baina tximistaren abiadura hartu du pentsamenduak. Egoerak joan eta etorri hasi zaizkio, errepidean ibilgailu azeleratuari zuhaitzak gainera etorri eta joaten zaizkion bezala.

Riezu herrixkan geunden, otu zaio orain. Uda zen hartan ere. Lizarratik hurbil. Lagun batzuk utzitako etxean. Beroaren beroa eta usainaren usain nahastea. Paisajeak hotsik gabeak; lekuz kanpo entzuten zuen galeper baten kantua. Beroa, bai. Uda benetakoa zen: fresko, epel, bero eta berotsua. Gariaren usaina, galsoroen lurrina. Mitxoletak usainetik ezkutatzen dira, beren kolore gorri-gorri horrek salatzen dituela kontuan hartu gabe, txangozale erromantiko edo despistatuek sortetan bil ez ditzaten. Horre-

gatik daude, gehienetan, han eta hemen, barreiaturik galsoroan...

Denak bat egiten du Amaiaren barnean, esna burua bakarrik balego bezala, eta gorputza lo. Makalez jositako bidexkan, erreka ondoan, geldi-tu zaio imajina. Xabier eta biok zihoazen. Inguru malkartsua utzi eta erreka ondotik herrirantz. Han hasi zen maitasun jokoa, hantxe, arratsaldean, bidexka hartan.

Oroitza berera iritsi zen Xabier, ziegan, oroi batetik bestera ibili ondoren. Coca-cola poto hutsa haizeak pirritaka zeraman patioaren alde batetik bestera. Eta haize hura ideia batekin uztartu zuen: «Arratsalde hartan, bidexka hartan, haize leunak maitasunez mozkortu gintuen; zerk bestela?». Amaiari barregura ematen zion denak. «Zoriontsua zela zirudien». Amaiak bizkarrera bota zion besoa, eta Xabierrek haren gerrian pausatu zuen berea. «Zergatik egiten zuen barre?».

«Egindako galdera bati erantzun behar zion Xabierrek, eta herabeti begiratu zidan, samur». Eta pentsamendu bat besteari loturik, tarterik utzi gabe: «Oso gustura sentitu nintzen». Auto-

busa bihurgune zabala zeharkatzen ari zen abiadura handiz.

«Nire nahastea, aztoramena, dibertigarria zitzaion». Mozkorren gisa zihoazen. Bi urrats aurrera, bat atzera, geldiuneak eginez. Barrez. Erreka-bidearen parean zihoazela bazekiten biek, baina erorikoak eginez jauzi egin zuten errekara, balizko beldur oihuz.

Irribarrez zegoen Xabier ohean, nahiz eta bere burua ez ikusi.

Errekara erortzera zihoazela konturatu zen Amaia, eta bustitzea desiratu zuen. «Hotz zegoen hura. Berehala atera genituen buruak ur-gainera, deiadar eta eztulka, barrez eta hitz-moztu artean. Blaiturik besarkatu ginen».

Xabier, ohean, beste behin biratu zen eskuak belaunaren artean sarturik. «Kamiseta azpitik sartu zizkidan eskuak. Gerri inguruan imurtxi leunak eginez koxka egin nion lepondoan». Larruazal beltzarana, ilunabarreko gari saila, lurraren lurrina, txilar zuria; epel, eme usain. «Lepoa miazkatu nion behetik gora, ur-orbain arrastoa utziz lepotik belarrira».

Amaiak lekuz aldatu zuen burua, kristalaren bestaldera. «Lepoa muxukatzen ari zitzaidala, trabeska jarri nintzen pittin bat. Bere eskua nire sabelean sentitu nuen, bero. Zilborrondoa aurkitu balu bezala aztertzen zuen zehatz-mehatz, bere atzamarrak gora eta behera, zilborrondoaren ertzetan...».

– Goazen etxera –esan zion Amaiak belarrira.

Xabierrek Amaiaren imajina ukitzeko moduan zuen. Adats-izpi zatia begi bat estaltzen. Kamixeta zuria gorputzean itsatsia. Begi beltz distiratsuak, urtsuak. Eta nola joan ziren oroitu zuen, kitzikatuta. Etxea ez zegoen leku hartatik urrun.

Amaiak bereziki oroitu zuen etxe sarrerako ilunpea. «Beheko solairutik harrizko eskaileraz gora iluna argi egiten zihoan. Ilunpeak logelako argia edertzen zuen. Urre zahar kolorez agertu ziren hormak eta egurrak, ohe eta bestelako altzariak, ispilua, esekitokia, liburu batzuk». Logela sartaldean zegoen, eta eguzkia hiltzera, lurperatzera zihoan... bere gain hartzen zuen gorrihori kolorea.

Xabierrek eskuoihala atera zuen kaxoitik. Logelak ez zion hotsik ekarri. Soinurik ez zegoela,

soinu gabeko gela zela oroitu zuen. Okre kolorearen orkestra han biltzen zela iruditu zitzaion ordea. Tonu argitik ilunera, horitik gorrira. «Eguzkia», pentsatu zuen Xabierrek «gehiegi ahalegintzen da; akiturik amaitzen du eguna». Amaia eta bera aurrez aurre jarri zireneko sekuentzia gomutatu zaio. «Kamixeta kendu genion elkarri... eskuoihalez batak bestea lehortzen». Bizkarraren bustia xukatu zion Xabierrek eskuoihal eta muxuz. Amaiak Xabierren prakak askatu zituen.

Amaiak Xabierren bizkar gorri-beltza ekarri du gogora. «Gorputz iharraren gihar eta hezurrak nabarmendu zitzaizkion. Aurpegia sorbaldan jarri nion; bi larmintz, ezberdinak, biak leunak. Ezpainek muxuak ereiten zituzten». Xabierrek ere prakak kendu zizkion ondoren, dena, berak egin zuen modura. «Xabierren ipurmasailak heldu nituen orduan, biak zutik geundela, eta niregana erakarri zuen. Hoztuta zuen ipurdia».

Amaiaren gorputzaren kontra estutu zen Xabier. Amaiak ahurra sabelean jarri zion, sutsu, eta jaisten hasi zen, emeki, geldiro, sabeletik behera.

«Xabierren eskuak titietara igotzen sentitu nituen, poliki, iristeko presarik gabe. Bular oinean gelditu zen, tolestura aztertzen». Eta belaunikatu egin ziren biak. «Urtsua zen Xabierren ahoa».

– Amaia! Esnatu, Amaia! Iristen ari gara. Hamar minutu barru agertuko zaigu espetxea.

«Eta belaunikatu eta gero... etzan. Hasperen eztia zen Amaiarena». Haize-ahokada hartu zuen Xabierrek... Espetxeko sirenak jo du goizeko zazpiak eta laurdenetan. Ernatu da Xabier. «Azkar iritsi da goiza» pentsatu du erdi nahasturik.

Espetxeko aparkalekuan gelditu da autobusa. Hara eta hona ibili da Amaia gauzak prestatzen. Arropak atondu ditu, ilea orraztu. Xabier inoiz baino hurbilago dauka.

Zerura begiratu eta bost flamenko ikusi ditu hegan.

Xabierrek baldea urez bete eta gainetik bota du, ziegan bertan. Bizarra mozten ari dela, bost segundoz bere aurpegiari begira geratu da.

– Hor egongo da Amaia –esan dio ispilukoari, urduri, egonarri.

Goizeko bederatzi t’erdietako txanda da Amaiarena. Poliziaren kontrolgunea pasa eta espetxearen atari nagusira abiatu da Amaia, kartzelari bat ondoan duela.

Xabierrek plastikozko poltsa hartu du esku batean, eta bestean beste poltsa bat darama: eskuoihala, ura, zumo litroa. Korridore nagusitik doa, burdin langa automatikoak atzean utzita; kartzelaria ondoan.

Amaia espetxe barrura sartu denean barrotezko ate erraldoi batekin topo egin du. Ezkerraldean, bulego antzeko batean, kartzelari bat dago. Honek nortasun agiria hartu eta burdin langen kontrolera eraman du.

Xabier, barrutik kanpora. Amaia, kanpotik barrura.

Bata bestearen aurrean elkar ikusi dute halako batean, kartzelariak beraien artean hizketan ari bitartean. Bost, sei metrora daude, barrotedun ate atzean, elkarri begira. Eskuan bi poltsekin ikusi du Amaiak, jertsea gerrian, bere irriba-

rre zabalarekin. Xabierrek Amaia ikusi du, buruko zintaz.

Soinu gabeko espazioa da Xabierrentzat. Baina Amaia zerbait esan nahian dabil, eta ez zaio ateratzen.

– Zer... –esan dio Xabierrek, goxo.

Amaiak garbi entzun du Xabierren ahotsa, eta isilunearen ondoren...

– Hemen gaude... –erantzun dio, lotsatiantxa.

Maddi jaio zen eguna

Herrerako patioan arropa garbitzen ari zen Martin. 1998ko urtarrilaren 18a zen. Jertse bat garbitzen ari zen hain justu. Askatik eskegitokirako ur-arrastoak, bidexka marraztuz, odoljario larria zirudien.

– Leungarria erosi behar diat –esanez joan zen eskegitokira–. Haurra ere jaiotzeko egongo duk.

Kartzeletan lizentziatua zen Martin. Hamabost urte baitzeramatzan ia espetxe haietan: espetxe zaharkitu, zaharberritu eta makroetan.

Pintza pare bat jarri ondoren, eta eskuak bustita zituela artean, Herrerako zerura begiratu zuen: «Nork sal edo eros lezake Zeruaren edo Lurraren berotasuna?». Ez zen esaldi soila, bakana, galdua, testuinguru gabea hain sarritan zetorkion esaldi hura.

Goizalde: Gertaerak berea zuen esaldi hura, esango duzu.

Kontalaria: Ez.

1996ko urriaren 11n sartu zuten Alcala-Mecoko espetxean (urriaren 31n omen zeukan epaiketa). Eta *ingresos* deritzon modulua utzi eta modulu normal batean sartu zutenean, ziegara igo baino lehenago, kartzelariak jakinarazi zion ziega beste lagun batekin banatu beharrean zegoela.

– Beste lagun batekin banatu? –galdetu zuen Martinek, kezka doinua emanez.

– Zuetakoa da –erantzun zion kartzelariak–. Ez dago beste lekurik –erantsi zuen, bulegoan zeukan arbela bati begira.

Eta hala joan zen Martin, petate handi bat bizkarrean hartuta. Lehenengo pisura, gero bigarrenera, eskuin aldeko galerian sartu eta erdialdeko ziega bateko atea ireki zuen kartzelariak.

Goizalde: «Euup!» bota zuen Martinek.

Kontalaria: Antzeko zerbait...

– Hara!

– Aibadio! Zer habil, Alkorta! –harritu zen Martin, poza ezin gorderik.

Alkorta erretzen ari zen. Termo batetik kafea ere atera zuen:

– Hartzak! –esan zion Alkortak–, hartzak kafea!

Tabakoa eta kafea, kontu zaharren lurrinak, denak bat egiten zuen ziegan. Denbora ere geldirik... leiho eta ate zirrikituetatik ihesi zihoana izan ezik. Larunbat gaua zen, eta egun oso bat igaro zela ere ez ziren ohartu. Larunbat gaua zen, urriaren 12an bizi zen mundua, eta Martin eta Alkorta aldiz ziegan bizi ziren, mundutik kanpo.

– Eta Patxeko? Gogoratzen al haiz Valdemoron egon ginen urte hartakoa? –galdetu zion Alkortak.

– Nola ez nauk gogoratuko ba... Patxeko. Gauzak oroitu ezinik Patxeko.

Patxekoren eritasuna urrunetik zetorrela esaterik ez zegoen. Sorterritik al zekarren eritasun hura? Venezuelatik agian? Euskaldunak ezagutu zituenetik?

– Ez huen ezertaz oroitzen, e? –umorez Alkorta.

Eta Martin Patxeko imitatzen:

– «Bai, nik ezagutu nuen; kontxo, nola zen ba hura? Bai, zera, mutil gazte bat; tira, ez hain

gaztea. Nola zen ba haren izena? Zinkri, Zirrinki... Zuen kidea zen ba! Kooontxo! Zera, Ocañatik ekarri zuten ba. Ez, Ocañatik ez... Herreratik! Ez al zuten Cordobatik ekarri? Bai! Cordobatik ekarri zuten!». Kooontxo Patxeko!

– Ez huen isiltzen, kar-kar... –barrez lehertzen ari zen Alkorta.

– Azkenean Pelotas huen. Hik esan hion: «Zinkunegi!».

– Bai, Pelotas huen, zestoarra –berretsi zion Alkortak.

Gaueko kontaketa pasa ahala, denborak, espazioak, hizkuntzak... itxura ezberdina hartu zuten, beste kutsu bat, oro hutsean eroriko balitz bezala. Eta oro huts horretan gelditu, flexoaren argira.

Goizalde: Suaren aurrean gertatzen den bezala.

Kontalaria: Horixe bera.

– Etxeberriak asko eman zidak niri, Martin, semeaz aparte... –jardun zuen Alkortak–. Naizen hau berarekin egina dela-edo sentitzen diat, kartzelak, borrokak, urteek, molde bat xixelatu badute ere.

Iluna ikusteko jarrita zegoen flexoaren argia, iluntasuna pilatzen zen leku hartan.

– Eta Etxeberriak berdin bizi al dik hori? –Martinek itzaletik.

Puruaren kea ere pentsamendutan zebilen ziega barnean. Gaua ez zen higitzen. Hitzek, esaldiek, elkarrizketek soilik hartzen zuten abiadura.

– Gure herri hau oraintxe zagok aurrera edo atzera egiteko moduan.

– Ez al duk beti horrela egon? –Martinek Alkortari.

– Hala izango duk. Izan ere beti izerditan gaudek; ez zagok arnasa hartzeko astirik.

– Irabaztera egin behar diagu, Alkorta. Nahikoa ditek urde hauek. Aitaren etxea defendatuko diagu, bai, baina hozkadaz, mekagueeen!

– Orduan protesia jarri beharko diat, Martin.

– Barre egiten al duk?

Begiak itxita egiten zuen barre Alkortak, soinurik gabe.

Goizalde: Barrea dastatzen, beraz.

Kontalaria: Dasta daiteke barrea?

Eta horretan zeudela ahots bat entzun zuten, ke artetik zetorrena, flexoaren argitik kanpo, ilunetik urrun... baina hantxe.

Ahotsak esan zuen:

– Euskaldunak al zarete? Ni Seattle naiz. Duwamish tribuko buruzagi indiarra –ahots geldo eta baxua zen.

– Barkatu, jauna. Baina guk ez zaitugu ezagutzen, eta duwamishak nor diren ere ez dakigu... ezta, Alkorta? –esan zuen Martinek ziegako espaziora begira, ziegek ez baitute ortzirik.

– Gure tribua Estatu Batuetako ipar-ekialdean bizi zen. Egungo Washington estatua dagoen lekuan.

Alkortak eta Martinek elkarri begiratzen zioten.

Goizalde: Egia esan, ni ere izutuko nintzateke.

Kontalaria: Sinesten ez zutela zeuden.

– Entzun, arren. Ez ezazuela Lurra saldu!

– Seattle jauna, guk ez dugu inongo lurrik saltzeko asmorik –nahastea argitu nahi zuen Alkortak.

– Lurrarekin zer ikusirik badik gure borrokak. Lurra, askatasuna –esan zuen Martinek.

– Ezagutzen zaituztegu –jarraitu zuen ahotsak–, ezagutzen zaituztegu. Euskaldunak bizi ziren gu bizi ginen garaian ere. Garai hartan euskaldunek borrokaren bidea hautatu zuten beren Lurra defendatzeko. Guk berriz...

Eta isilunea aprobetxatuz, Alkortak upakada luzea eman zion puruari.

– Gertatutakoa kontatuko baligu berorrek? –ausartu zen orduan Alkorta, esaldia ketuz.

Eta ahotsa, Seattle buruzagiak alegia, entzun eta ulertu balu bezala mintzatu zen:

– 1855ean Washingtongo gobernuburuak jakinarazi zigun gure Lurra erosi nahi zuela. Baina nork eros edo sal lezake Zeruaren edo Lurraren berotasuna? Nola, esan, gu ez bagara airearen frexkotasunaren jabeak, edo uraren distirarenak?... Baina bere eskaintza hausnartu egin genuen, bagenekielako, bestalde, saltzen ez bagenion, gizon-zuria bere armekin etorriko zela, gurea zen Lurra hartzeko. Erabaki bat hartzen saiatu ginen...

– Sute jauna –moztu zion Martinek–, galdera bat egin diezazuket?

– Nire izena Seattle da. Lagunek Ohto deitzen naute –zuzendu zion buruzagi indiarrak.

– Ohto jauna, zuen Lurra erosi nahi zutela diozu. Zuen tribuak non bizi behar zuen, hortaz?

Bitartean, Alkortak termoa hartu eta edalontzi batean isuri zuen kafe beroa.

– Eroso bizitzeko moduko leku bat emango zigula esan zigun Buruzagi Nagusiak...

Ahotsak isilune bat egin zuen. Kafeari azukrea bota eta plastikozko koilara batekin nahasten ari zen Alkorta, patxada ederrean.

– ...Bagenekien gizon-zuriak ez zuela gure pentsatzeko era ulertzen. Arbasoen ahotsa zen uraren zurrumurrua. Ibaiak gure anaiak ziren, egarria iraungi ziguten. Ez dakit, baina gure izaera ezberdina da. Hiriek min egiten dute azalgorriaren begietan. Apika azalgorria basatia delako da, eta ez du konprenitzen. Zurien hirietan ez dago isiltasunik, udaberrian hostoak hazten entzuteko lekurik ez dago, ezta intsektuen burrunba aditzeko ere. Beharbada, ni basati bat naizelako da soilik, eta ez dut ezer ulertzen. Zer da bi-

zitza kaxkabeltxaren kantu bakartia entzun ezin baliteke?, edo igelen korrokak ilunabarrean? Haizearen murmurio leuna senti lezake indiarrak, aintziraren gainetik datorrena, eta goiz-lanbroak garbitutako haize kolpea ere bai, edo pinu-urrinaz beterik datorrena.

– Poeta baten antzera hitz egiten duzu, Ohto –esan zion Alkortak.

– Aireari garrantzi handia ematen zion azalgorriak; denok bat egiten baitugu arnasean. Gizon-zuriak ez dirudi aintzat hartzen duenik arnasten duena.

– Ohto, oso ederra da hori –miretsi zuen Martinek– Baina... zergatik ez zenuten azkeneraino borrokatu?

–Erreserba batera joateko eskaintza hausnartu genuen. Aparte eta bakean bizi izateko. Berdin zitzaigun gainerako egunak non igaro. Gure seme-alabek otzan eta menderatu ikusiko gintuztela aurreikusi nuen, gure gerlariak lotsaturik... Gainerako egunak non igaro behar genituen berdin zitzaigun. Ez ziren asko gelditzen. Ordu batzuk, negu bi, eta ez zen Lur hartan garai batean bizi izandako seme-alabarik geldituko,

ordura arte oihanean talde ttikitan barreiaturik bizi izan ginen antzera.

– Zuen gezi eta rifleak ez al ziren gure balen modukoak? –galdetu zion Martinek.

– Esan nuen garai hartan: azken azalgorria desagertu eta bere oroimena belardian laino baten itzal bihurtzen denean, orduan ere bizirik iraungo du nire arbasoen izpirituak erreka bazter eta basoetan.

Eta ahotsa isildu egin zen.

– Egun badakigu gizon-zuriak zer nahi zuen –hasperen egin zuen Martinek.

Goizalde: Bai, primeran gainera...

Kontalaria: Zenbat kalte!

Berandu zen oso. Gauzak bildu eta oheratzea erabaki zuten Alkortak eta Martinek. Flexoaren argia itzali eta gero ere lo hartu ezinik zebiltzan bi lagunak.

Espetxearen mikrokosmoa, esaten dute; hain da misteriotsua espetxea kanpokoentzat!

Harrezkero, Martinek zerura begiratzen zuen bakoitzean Ohto indiarraren esaldia zetorkion.

Goizalde: «Nork sal edo eros lezake Zeruaren edo Lurraren berotasuna?».

Kontalaria: Nork...

Burua makurtu eta harraskara itzuli zen berriro ere Martin, jertseak utzitako ur-arrastoari jarraituz; ez zegoen galtzerik.

1998ko urtarrilak 18 zituen Maddi jaio zenean, artean Martinek ez zekien ordea.

Bi terrorista

Salto del Negro espetxea Las Palmasen dago, Kanariar Uharteetan, Afrikan.

Abdelassisen ustez egun guztiak berdinak ziren. Ordu berdinean esnatu, patiora jaitsi, bazkaldu, afaldu, ziegetara igotzeko formatu...

– Telebista programazioa ere behin eta berriro errepikatzen da –kexu zen; gaueko pelikulak aspergarriak ziren edo jada ikusita zeuzkan–. Presoen arteko harremanek, sikiera, fundamenturik balute?

Abdelassis patioan, bosgarren moduluko patioan, itzulika zebilen burumakur. Komunen parera iritsi zenean, komunak garbitu eta patioan bildutako ur putzuen ondora, ezaguna egin zitzaion halako potxingo baten itxura.

– To! Australiaren gainetik hegan noak! –bota zuen.

Inguruko potxingoak aztertu zituen, bat-banaka, eta Ipar Afrikako itsasertza aurkitzen saiatu zen perspektiba diferenteetatik.

Ate hotsak entzun zituen. Kartzelariak galerian zebiltzan ateak zabaltzen. Gorputzaren jarrera aldatu gabe, ziegetako leihoetara begiratu zuen patiotik, eta gizon baten irudia ikusi zuen ziega haietako bateko leihoan. Hura ere preso.

– Aizu! –oihu egin zuen preso etorri berriak–, euskaldunik ba al dago modulu honetan?

– Ez, ez dut uste –erantzun zion Abdelassisek–. Zu euskalduna zara, ezta?

– Bai, hala naiz.

– Ba, begira, nik ez dut euskaldunik hemen ikusi. Zure kide asko ezagutzen ditut ordea.

– Ondo, ondo da. Egongo gara. Zera... zein izen duzu? Nirea Aitor da.

– Abdelassis. Baina Assis deitzen didate gehienek.

– Ederki, Assis. Ziega garbitzera eta txukuntzera noa...

– Ados.

«Euskaldun hauek beti diferente dituzte», pentsatu zuen Abdelassisek, «gu patioan gaudenean, hauek ziegan dituzte; bazkaltzen gaudenean, bisitan; eta bisita dugunean, dutxarako

ordua ezartzen diete. Euskaldunak beti diferente...».

Patioan itzulika jarraitu zuen Assisek, Australiaren gainetik hegan: Australia, potxingo-kontinentea, zementuzko ozeano batek inguratzen zuen.

Leihotik pauso bat aldendu zen Aitor. Zuhaitzik gabeko haitz bolkaniko bat zeukan begien aurrean, berde-marroixka. Patioa inguratzen zuten horma laburrek paisaje zati bat ikustea ahalbidetzen zioten. Postal baten antzekoa iruditu zitzaion Aitorri eta «postala» deitu zion ordutik aurrera haitz triste hari.

Kirol poltsa ireki gabea. Lixiba eta baldea, erratza eta lanbasa. Egitekorik behinena, garbiketa, atzeratzen zihoan. Leihotik barrura haize zorrokada sartzen zelako-edo, haren igurtziaren ondorio, guantxeen presentzia hurbil nabaritu zuen euskaldunak. Postalari so, haiek etorri zitzaizkion burura... Txabi, Azurmendi, Artajo, Txapela Jon, Xenki eta Murgi...

Ostiraletan Garazi pozik irteten zen ikastolatik. Ostiral hartan bereziki. «Bostetarako etxean» zioen, eta Zelatxo baserri aurretik abiatzen zen etxe aldera. Eta etxeko bidean, ostiral hartan, sagarrez beterik ikusi zituen sagarrondoak. Jaizkibel mendia gertu eta urrun agertu zitzaion begien aurrean: «Jaizkibel mendi txikia ala handia da?». Kezka horrek hamar metro-edo entretenitzen zuen beti errepidean. Azken finean, Jaizkibel mendi luzea zela pentsatzen zuen, non hasi eta non amaitzen zen begiratu ondoren.

Errepidearen alde batera sagarrondoak eta bestera zelaia. Garazik Donibaneko tximinia luzea bilatzen zuen urrutira, itsas aldera, aitak behin esandakoa gogoratuz:

– Tximiniatik irteten den kea xuxen gora doala ikusten baduzu, eguraldi onaren seinale da. Keak eskuinera egiten badu, eguraldi txarra seguru!

Orduan, berak egindako galderaz oroitzen zen:

– Eta ezkerraldera egiten badu?

Aitak aurpegi xelebrea jarri zion, hotzaren keinuarena alegia.

– Ezkerraldera egiten badu, prantses-haizea; hotza ttiki, hotza!

Aspaldiko kontuak ziren haiek. Aitak ia zazpi urte baitzeramatzan espetxean. Pastide baserri aurreko aldapa jaisten hastekoa zela, goizean edukitako eztabaida ekarri zuen gogora Garazik. ETAkoak hiltzaileak zirela esan baitzuen Ikerrek, bere gelako mutiko horrek.

Karnaba baten kantua hegan zihoala, Garaziren begi marroixkak, ia beltxak erakarri zituen, eta begiratu eta erabaki, ekintza bakarra bailitzan, hurrengoan aitari galdetzea ea hiltzailea zen ala ez.

Bazekien ETAkoak hiltzaileak ez zirela, baina aitaren iritzia behar-beharrezkoa zuen. «Zertan ibiliko da aita orain?». Garazik urrutira ikusi zuen Sagasti-Arte baserriko txakur zaunkaria. Enara batek brastakoa egin zuen airean. Belar zikinak erretzen ari ziren nonbait; landa-intsentsua haranean laino...

Emakume bat eta hamabi gizonezko euskal preso politiko zeuden garai hartan Salto del Ne-

groko espetxean. Astero ziega aldaketak egitera behartzen zituzten. Eta hilabetero modulu aldaketak egiteko aginduak ematen ziren Zuzendaritzatik. Modulu arteko aldaketa hori zela-eta ekarri zuten Aitor bosgarren modulura. Iñaki zortzigarren moduluan utzi zuen Aitorrek, petateak ere eginak zituela, aldaketarako zain. Modulu aldaketa soila zen. Baina moduluak mugaldeak ziren.

Han zegoen Manu ere, espetxean, Aitor bezala, baina elkar ikusi gabe zeuden, bi urte luze bai ekarri zituztenetik. Normalean banaka egoten ziren modulutan, lagunik gabe.

Aitorrek postalari begiratzen zion tarteka, makurtuta, zutik, saiheska, bizkarra ematen zegoelarik ere, burua jiratuta. Haize korrontea ziega barruraino sartzen zitzaion. Aitorrek ez zekien haizeak bere ibilbide jakinak izaten dituela. Ez zitzaion otu ere egin, irlako haize haiek, guztiak, itsasotik zetozela beharrez. Orduan oroitu zuen behin Garazik egindako galdera:

– Non egiten du loa haizeak?

Eta erantzun zion:

– Ikusten duzu zeruaren urdin hori? Lo dagoen haizea da guztia.

– Eta egonean egiten al du lo haizeak? –jarraitu zuen Garazik.

Garbiketa hasi gabe zegoela, atea ireki eta bi kartzelari azaldu zitzaizkion.

– Gauzak bildu eta isolamendu modulura eraman behar zaitugu.

– Oraintxe ekarri eta berriro isolamendura?

– Positibo! –bota zuen kartzelari batek.

«Positibo?».

Petateak galerian utzi eta leihora atera zen.

– Assis, isolamendura naramate! Egongo gara!

Assisek eskua altxa, jaitsi, han zihoan martxa berean. Aitorrek keinua bota zion postalari: «Beti arte bat, postala, haitz berde-marroixka», norbait bailitzan. Zeinen azkar gertatu zen guztia! Agurra, keinua. Bai, espetxean jakin izaten da noiz hasi eta noiz amaitzen diren gauzak; eta gauzak egoerak dira, gauzak sentimenduak, gauzak paisaje urri horiek, inorenak diruditenak, hain zuzen.

Zementuaren erdian zulatutako hobiak ziren isolamendu ziegak. Ez zen leihotik argirik sartzen, sare handi batek leihoa estalirik baitzeukan. Aitor leihora hurbildu zen eta inora begiratu gabe, bere deia errepikatu zuen:

– Euskaldunik ba al dago hemen? Ei! Euskaldunik ba al dago hemen!

Artean ez ziren bostak.

Zentolen baserri paretik zihoan Garazi, hilerria pasata. Hilerria, Zentoleneko hilerria, harresituta dago. Kanpotik ezin daiteke barrua ikusi. Barrukoek ezin dute kanpoa begiratu.

Garazik pentsamenduen haria zeraman. Gogoeten mintegi isila zen ikastolatik etxerako bidea, bi kilometro t'erdiko ibilbidea. Garazik gutxienez hemezortzi urte eduki nahi zituen, hemezortzi urte beteak, begirunez har zezaten besteek. Kontua ez zen begirunez hartzea ala ez hartzea soilik, «hemezortzi urte izango banitu ez nintzateke isilduko, orain bezala... Denen aurrean esango nuke pentsatzen dudana». Horregatik miresten zuen Mieltxo. Ttikia zen, baina

Mieltxok bere iritziak inolako beldurrik edo lotsarik gabe botatzen zituen. Eta gustatu zitzaion Ikerri botatako «Ez da egia!», ia oihukatuz, «hiltzailea zu izango zara!». Mieltxoren begiak ere gustukoak zituen. Amonaren katuek antzeko begi berde bixi-bixiak zituzten. Sudur motz, orezta bakanak gainean zituela han eta hemen.

Orereta herriko elizaren kanpandorrea ez zen ikusten, baina herria suma zitekeen han behean. Autobideko zubi aldera hurbiltzen ari zen. Aitak bostetan deitu behar ziola gogoratuz ordulariari begiratu (bostak laurden gutxi), eta lasterka, esfortzu handirik gabe, malda beherak arindutako abiaduran joan zen.

Amonaren etxea agertu zen, bihurgune txiki bat pasa ondoren. Aitona baratzean egongo zela pentsatu zuen Garazik. Etxetik berrogei metroraedo, Dick zakurra antzemanez, deitu egin zion:

– Diiick! Diiick!

Garaziren haur-oihuek Dicken belarrietan jo zuten, deiadar-talkak balira bezala, eta Dickek behatu gabe jaitsi zituen eskailerak, ziztu batean. Garazirengana iritsi, bere mihi luzearekin

aurpegia miaztu, saltoka isatsari mugitzeari utzi gabe agurtu zuen etxeko neskatila.

Bostak ziren. Garazik, amonarekin batera, Dick zakurra atearen ondoan etzanik zegoela, aitaren deia itxaroten zuen. Bostak eta hamarretan, «ez du gaur deituko», betiko kezka. Baina bost t'erdietan, puntuan, Garazik uste ez zuenean, telefonoa jotzen hasi zen.

– Bai?

– Ni naiz, aita...

Amona jarri zen lehenik, enkarguak hartzeko. Eta amonak, Arrasateko hizkera horrekin hitz egiten zuen; eta barre egiten zuen sarritan. Agenda antzeko liburuxka batean zerbait idazten ari zen amona:

– Ostirala!, ze egun da ostirala, barikua? –esan zuen amonak.

Garazik ez zuen detailerik galtzen. Azkenean amonak keinu bat egin zion, «orain jarriko da» esaten zuela.

– Joateko desiratzen nago, aita –ziotson Garazik–, oporrak etorri zain!–. Ikerrek esandakoa azaldu zion aitari.

– Horretaz hitz egingo dugu lasaiago bisitan –Garazik espero zuen moduan erantzun zion aitak.

Beraz, gaia aldatu zuen, eta Xenpelar Bertso Eskolan izena eman zuela esan zion aitari.

– Bidaliko dizkizut egindako bertsoak.

– Musika eta guzti? –galdetu zion aitak txantxetan.

– Bai, musika eta guzti –erantzun zion barrez.

Mozteko agindua eman ziotela adierazi zion aitak. Garaziri motz, oso motz, egin zitzaion.

– Aita, Dick ere hemen dago! –jada presaka.

– Ez al da txabolan lotuta egoten ba? –presaka aitak.

– Ez, etxeko balkoian egiten du lo...

Eta horrela amaitu zuten, muxu eta besarkada handien artean.

Assis ere isolamendu modulura eraman zuten egunean, Aitorrek gose grebaren hamargarren eguna osatu zuen. Lerro gutxikoa zen Aitorrek idatzitako gutuna.

«Kaixo etxekoak:

»Gose grebetan, salbuespenik gabe, galtzaren patrikak ere gosez betetzen zaizkigu. Ezagunak ditugu bere astinduak. Baina olatu izango gara, urrundik datorrena. Urak biltzen joango gara egunetik egunera. Gosea gatz bihurtuko da; oinazeak, harea. Olatuaren gainean datoz estualdiak. Itsas aparra, estututako hortz horiexek dira, hortz txuri horiek. Gure olatu erraldoiaren lepoa jaso eta bortizki joko dugu espetxeko horma-harkaitza. Goitik behera zipriztinduko dugu, gatz, harea eta hortzekin batera. Orduan aurrez aurre esango diogu: “Hemen gaudek gu! Ze uste huen ba?”».

Ustekabean hartu zuen Garazi gose grebaren berriak. Aita gose greban zegoela entzun zuen, baina «zer esan nahi zuen horrek?». Egunkarian irakurri zuen, bai, preso bat jipoitu zutela eta bizi-baldintza duinak eskatzen zituztela presoek, euskal presoek, aitak ere bai horien artean. Tratu txarrak errepika ez zitezen neurriak hartzea eskatzen zuten. Baina, ez zuen Garazik sofrimenduaren arrastorik aitarengan inoiz sumatu. Aita beti ondo zegoela zirudien, alai, txantxetarako prest, nahiz eta batzuetan serioa ere iru-

ditu. Aitak gauzak ezkutatzen zizkiola ohartu zen orduan, berak egiten zuen modura. Aitari ez zion dena esaten; «konturatu ote da aita horretaz?».

Gose greba jan gabe denboran irautea zela bazekien, baina ezezaguna zitzaion hala ere. «Zertan datza gose grebaren borroka? Gosez egotea soilik?».

Goiz hartan, jolas orduan, Mieltxo hurbildu zitzaion ondora eta esan zion:

– Zure aitari marrazki bat bidali nahiko nioke. Zuzenean bidaltzea baino hobe izango da zure bitartez eskuratzen badu.

– Asteburuan idatziko diot. Emadazu marrazkia –adierazi zion Garazik, eta bihotz taupadak normalean ez bezala entzun zituen bere barnean.

– Klase amaieran emango dizut –esan zion orduan Mieltxok, eta Garaziren begi marroixketan, ia beltxetan, normalean baino denbora gehiago gelditu zen Mieltxo.

Afalostean, Garazi aitarentzako gutuna idazten eta aldi berean irakurtzen ari zen. Bere lanetan ari zen amona ere, armario honetan eta hartan ontziak, platerak, edalontziak sartzen.

– Garazi, aitari esan kartak normal idazteko, literatura alde batera utzita; eta kontatzeko ondo dagoen ala ez –aiurri irmoko emakumea zen amona.

– Amona, ni... ni lotsatia naiz?

«Ze idazten ibiliko da hau?», esan zuen amonak bere baitarako, garrantzirik eman ez balio bezala:

– Igual izango zara... –eta sukaldetik egongelara joan zen zerbait uztera edo eramatera.

Gutunaren azken lerroak Mieltxorentzat izan ziren.

Argia moteltzen zenean, Assisek pultsua hartzen zion denborari. Aztertu egiten zuen. Ilunabarrak gertutik aztertzekoak zirela erakutsi baitzion aitona izan zenak.

– Ilunabarrak bere arrastoa uzten du zeruan, mendietan, pertsonetan ere bai –esaten omen zien afalosteko solasaldietan, ipuinak asmatzen diren orduetan.

Iluna itzal handi hura, lainoen modura zetorren, poliki, dena betetzen. Assisek, ilunabarra-

ren lehen mugimenduak barneratzeko, begiak ixten zituen. Eta bere herri inguruko mendi gailurretan asmatzen zuen bere burua, Rifeko lurraldean, hainbatetan egon zen modura, harri koskor baten gainean eserita, ilunabarraren mareari begira. Ziega barnean ederki aski berregin zezakeen bizi izandakoa. Isolamenduan zegoenetik ordea, ilunabarra elkarrizketaren sinonimoa zen. Afalosteko mintzaldiek eguna zegiten; ez osatu, ez biribildu soilik. Eta elkarrizketak aurrera egiten zuen heinean lokartzen zen espetxea.

Espetxea lo dagoenean, orduantxe bakarrik askatzen da egokien mihia, imajinazioa, bihotza. Barnean eta gordean ehotako pentsamenduak: bat-batean osatutako teoria, azterketa politiko futurista-edo, baita filosofikoa ere. Ia denak esan egiten dira, kontatu, eztabaidatu lagun giro horretan. Ia denak. Ez, bosgarren modulua ez zen hura bezala, baina egunak aurrera zihoazen, eta isolamendua eta bakardadea bi bide ziren, diferenteak, behin baino gehiagotan gurutzatzen zirenak.

– Aitor, afaldu al duk?

Kilkerra kantari ari zen patioan.

– Bandeja garbitzen ari nauk! –erantzun zion Aitorrek.

Saguzarrak ez zuen bide zuzenik egiten isolamenduko patio txikitik ilargirako txangoan.

– Bandeja garbitzen? Kar-kar...

Haizea ere erretiratzen ari zela zirudien, oso motel.

– Izango diat bandeja garbitzeko eskubidea, ezta?

Istant horretan isolamenduko patioa goialdetik zeharkatzen ari zen abioi baten argi gorri keinukaria.

Gose greba amaitu baino egun batzuk lehenago telegrama bat jaso zuen Aitorrek: alaba zihoakiola beste senide batzuekin. Pisua, presio arteriala, pultsua, mihia atera, ur botilari tragoa... Enfermeria modulutik kanpo zegoen, espetxearen beste muturrean. Sortaldetik sartalderako norabidea zen Aitorrena, ibileran eta oldozmenetan. Telegrama jaso zuenetik mila aldiz eszenaratu zuen bisita, eta ahotsa, azentua, keinuak

ipini eleari. Itxarongela antzeko ziega batean sartu zen enfermeriako moduluan. Ziegak leihoa zuen eta eurien tantak erreka itxurak imitatuz zebiltzan beiran.

Goizeko gertaerara itzuli zen berriro. Goizeko kontaketara. Goizeko ate-hots urdurietara. Kontaketarekin batera, goizeko zazpi t'erdietan hasi zen ezohiko mugimendu hura. Hasiera batean, ez zuen erreparatu Assisen atea zabaldu zutela. Ateak zabaltzen ari zirela-eta bai, igande goiza zela ere bai. Igandeak aspergarriak zirela pentsatzeko adina erreflexu izan zuen Aitorrek, ohean etzanik erdi lo zegoela. Ohetik jaiki, gosaria hartzeko potoa hartu, eta zeregin horietan zebilela, normala ez zen zerbait usaindu zuen giroan. Baina zer? Gosaria banatzen zuen ordenantzak txarro batetik kafesnea edalontzira botatzen zuen bitartean, Aitorrek naturaltasunez galdetu zion:

– Zer gertatu duk goizaldean, badakik?

– Mairua zintzilikatuta aurkitu ditek –erantzun zion ordenantzak, naturaltasun berdinarekin.

Baieztapena eta kezka bat egiten direnean portaera bitxiak sortzen dira; labak, sumenditik

kanpo, hotzak oratzen duenean hartzen duen bat-bateko forma biluzien antzera.

Aitor leihora joan zen bizkor eta leihotik hots egin zion lagunari:

– Assis! –behin eta birritan eta hirutan–, Assis!

Assisek ez zion erantzun. Ordenantzak esandakoa hortz-artean errepikatu eta lagunari deiadar. Joan zela buruak; haztamuka bihotza.

Isiltasuna zen normaltasunetik kanpo zegoena. Halaxe zen. Gerora ohartu zen Aitor. Itxarongelako leihoaren aurrean, malkoek bertikalean erori nahi zuten, kristalean zeuden euri tanten lorratzen atzetik. Zergatik? Noiz aldatu zuen borondateak norabidea? Zenbatetan zerbait esatea bururatu eta, azken unean, aldatu egiten zen hitza, esaldia? Berdin izango ote da beste hori, bizi nahi izan eta heriotza hautatzea azken unean?

Sendagileak, ATS batek agian, deitu zion enfermeria barrutik. «Antzekoa izan behar dik zahartzaroak» bere artean esanez hurbildu zen emeki, gose grebaren hogeita hamasei egunak

arraxtaka zeramatzala... pisua, presio arteriala, pultsua, mihia atera, ur botilari tragoa.

Aste amaieran espero zuen bisita. Zain zegoen, hilabeteetan egon gabeak baitziren. Ukondoak leihoaren markoan zurkaiztuta bazituen ere, eskuan zuen sagarrari kosk egiten zion, usaindu, Assis noiz eta zergatik etorri zen berriro oroitzen zuen bitartean.

Ziegaren ezkerraldera zortzigarren moduluko dutxak zeuden. Leihatilatik entzuten ziren jendearen barre eta deiak, ur hotsak, garrasiren bat, kantak faltsetean, txanpu eskaerak ahots altuan.

Assisen ezbeharrak erabat tristatu zuen, baina alabarekin zer hitz egin eta zer esan asko zuela pentsatzen ari zen Aitor. ETAkoak hiltzaileak zirela eta ez zirela, emaztearen eta bere arteko harremana eten zela... Assisena zergatik ez kontatu?

Sortaldetik sartaldera joan zen Aitor oraingo honetan ere. Bizkorrago ordea... lokutorioetara. Lokutorioetan begiratu azkarra bota zuen. Han

zegoen alaba. «Oraindik ere ttikia duk», atera zitzaion, nahi gabe, baina barrutik, eta harengana abiatu zen zuzen-zuzen.

Lehenengo agurrak egin eta, itzulinguru handirik gabe, gaiari heldu zioten.

– Amarena eta biona badakizu, ezta?

– Aspaldiko kontuak dira horiek, aita!

– Bai, baina ez dugu hitz egiteko aukerarik eduki...

Eta komunikazioa minutuetan gelditu gabe zihoan aurrera.

Garazi bere gelako mutiko hark aipatutakoa kontatzen ari zela, aitak paper zati bat atera zuen patrikatik. «Garrantzizko zerbait izan behar du», buruan alabak, paperean idatzitakoak mezu bereziak baitziren. Aita zerbait idazten ari zen. Garazik ere, badaezpada, papera atera zuen kartera txiki batetik. Aitak kristalaren kontra jarri zuen papera: «Guk askatasun ukatua eskuratu nahi dugu». Lauzpabost lerrok osatzen zuten idazkitxoa. Semea ikustera sartu berri zen andre edadetu batek ere ikusi zuen kasualitatez Aitorren jarrera, eta begira-begira gelditu zen. Garazik aitak idatzitakoa irakurri zuenean, idatzi zuen

bere papertxoan: «Ulertzen dut, aita», eta kristalean jarri zuen, aitak ondo ikus zezan. Andre edadetuak berdin jarraitzen zuen: begira-begira. Aitorrek alabaren esaldia irakurri zuenean, «Bai?» idatzi zuen bere paperaren mutur batean, eta kristalaren kontra ipini zuen berriro ere, pikardiaz. Barre isila egin zuten biek. Barre isil luzea.

Andre edadetuak semeari begiratu eta...

– Begira horiei –esan zuen–, kartzelan egon eta gainera gormutuak biak... Gizagaixoak! Hori da adorea!

– Terroristak dira horiek, ama –argitu zion presoak, Aitor ezagutu baitzuen.

– Biak!? –andreak ezin zuen sinetsi.

Haizea mindu gabe
hitz egin nahi dut,
nire hitzak leunki
barreia daitezen airean
giro goxoa osatuz,
gaiztakerietatik ihesi.

Haizea mindu gabe
idatzi nahi dut,
buruan igerian ditudan
ideiak moldatuz,
tristurak eta pozak islatuz,
papera koloreztatuz.

Haizea mindu gabe
sentitu nahi dut;
haizea mindu gabe
barre, negar, oihu
egin nahi dut.
Askatasunean bizi nahi dut
haizea mindu gabe.

Goizalde Atxutegi